



Munduko onenekin lehian

Uribarri Barrutieta durangar gaztea San Frantziskon (AEB) da egunotan, errugbi 7ko munduko txapelketa lehiatzeko. 21 urte besterik ez eta apurka-apurka bere tokia egiten ari da elite mailan. Erronkari heltzeko eta jokatzeko duen minutu bakoitza aprobetxatzeko prest dago. "Munduko onenekin lehiatzen zarenean errealitatea zein den eta benetan non zauden konturatzen zara", azaldu du txapelketako lehenengo partidua atarian. • 2-3

3.033 durangar galdeketaren alde, baina Durango Operazioa, aurrera

Durango | Erabaki plataformak 3.033 sinadura erregistratu ditu, trenak libre utzitako gunearen planaz galdeketa eskatzeko. Hala ere, udal batzorde jendetsu batetik pasatu ostean, Jaurlaritzak diseinatutako planagaz aurrera darrai gobernu taldeak. • 5. orrialdea



42 lanpostu kolokan daude Fosco enpresan

Izurtza | Berregituraketa baten ondorioz, Izurtzako enpresa ixtea aurreikusten dute. 4. orrialdea

ALKIMAX

Alquilamos soluciones

Goikoibarra Kalea, 26 · 48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)
Eitua industriagunea, 71C · 48240 Berriz (Bizkaia)
946 824 550 · alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net



 <p>ADAR-BIRRIINTZAILEA</p>	 <p>ZULAGAILUA</p>	 <p>ENBORRAK ZATIKATZEEKO MAKINA</p>	 <p>MOTOZERRA</p>	 <p>GASOLINAZKO MOTORDUN AITZURRA</p>
--	--	---	--	--



Uribarri Barrutieta Barrenetxea
Munduko errugbi txapelketa jokatu du
Durango | 1997

“Errugbian maila honetara heltzeko, gauza asko sakrifikatu behar izan ditut”

Eliteko kirolaria izateko ofizioa serio demonio hartu beharra dago. Uribarri Barrutieta urteetako lan horren uzta jasotzen ari da orain, eta egunotan San Frantziskon da (Ameriketako Estatu Batuak), munduko errugbi txapelketa jokatzeko

ERRUGBIA • JOSEBA DERTEANO

Espainiako selekzioagaz errugbi 7ko munduko txapelketako estreinaldia du gaur Uribarri Barrutietak. Fiji-ko selekzioa izango dute aurrez aurre. 21 urte besterik ez, eta errugbiaren elitean txoko bat egiten ari da durangar gaztea. Inork ez dio ezer erregalatu. Baloia besapean hartu, burua makurtu eta entsegua-

ren bila abidan doan jokalaria determinazio bera erakutsi du bere ibilbidean, eta lan horren saria jasotzen ari da orain.

Zure kirolari ibilbideko hitzordurik garrantzitsuenaren atarian zaudela esango zenuke?

Munduko txapelketa baten aurrean nagoela sentitzea itzela da, baina

beste edozein txapelketa balitz moduan hartzen saiatzen naiz.

World Series torneorako deialdietan ohiko jokalaria izan zaren arren, bazenuen kezka munduko txapelketarako hautatuko ote zintuzten?

Jokalari beteranoak badakizu joango direna, baina nire moduan nahiko berriak direnekin... Gainera, errugbi 7ko taldea hamabi jokala-

rik bakarrik osatzen dute. Beraz, sekula ez da jakiten eta banuen zalantza puntu hori.

World series zirkuituagaz alderatuta, zertan da desberdina munduko txapelketa?

World series-etan ligaxka bat jokatzen da hasieran. Munduko txapelketan, ordea, kanporaketak daude. Guk Fijiren kontrako partidua dugu

lehenengo. Irabaziz gero, aurrera jarraituko dugu eta, ostarantzean, etxera.

Hainbat partidu jokatu dituzu selekzioagaz. Une honetan, zein da zure tokia?

Errugbi 7an, esango nuke, aurrelari postua dela nirea. Durangon jokatuko banu, jokalaria azkarrenetakoa izango nintzateke beharbada, baina hemen ez. Hemen jokalaria oso arinak daude. Nire jokoa gehiago da kontaktuzkoa, indarra erabiltzekoa. Partidu laburrak —zazpi minutuko zati bi— eta oso intentsuak dira. Desgaste fisikoa askoz handiago da eta, hori lantzeko, egutegi bat eta entrenamendu espezifikoak ditugu urtean zehar. Asko igartzen da. Euskal Ligan zabiltzanean hiru esprint egin eta itzela zarela pentsatu dezakezu, baina munduko onenekin lehiatzen zarenean errealitatea zein den eta benetan non zauden konturatzen zara.



Gazteentzat gaitza da taldean toki bat egitea?

Apurka-apurka nire tokia egiten joan naizela uste dut. Izaeraz pertsona barnerakoia naiz, sarritan kostatu egiten zait irekia izatea, baina, uste dut alderdi horretan

“**Izaeraz pertsona barnerakoia naiz, baina uste dut alderdi horretan ere pausoak ematen nabilela**”

ere pausoak ematen nabilela denboragaz.

Mundua ezagutzeak eta munduan barrena ibiltzeak laguntzen du izaera zabalagoa izaten?

Bai. Durangotik Madrilera zoaz, bakarrik zaude eta zeuk atera

behar dituzu babak eltzetik. Norberak egin behar du besteengana zabaltzeko ahalegina. Edo egiten duzu eta ez duzu askorik iraungo.

Madrilen, zenbat denbora eman duzue kontzentratuta?

Iazko azaroan hasi ginen eta, hileroko, bi-hiru aste kontzentratuta eta lanean eman ditugu Madrilen.

Bestela esanda, denbora gutxi eman duzu Durangon, etxean. Herriaren falta sumatu duzu?

Bai, nire inguruaren falta igarri dut. Bartzelonatik Madrilera bizitzera bazoaz, beharbada aldaketa ez da hainbesterako, baina Durangotik joanda... bizitza erabat aldatzen da. Sarritan etxemina izaten dut, etxera bueltatzeko gogoia. Lelokeria ematen du, baina Durangora bueltatzeko falta diren egunen atzerako kontaketa egiteak lagundu egiten dit. Etxean egun bi bakarrik emanda ere, indarberritu egiten zara: lagunak eta lehengusu-lehengusinak ikusi, nire betiko ohean lo egin...

Madrilera zein San Frantziskora, etxetik kanpora zoazen egunetan, zer ez zaizu sekula ahazten motxilan sartzea?

Eroso egoteko, etxeko kuxin bat, lehengusu-lehengusina denak agertzen diren argazkia, eta musika. Hiru gauza horiek beti eramaten ditut.

Munduko txapelketan, zer eginda geratuko zinateke gustura zure buruagaz?

Minutu gutxi jokatzen baditut, nire lana ondo egin dudan sentsazioagaz irten gura nuke. Gauza bi egin behar baditut, horietan nire maila ematea. Beste erronka bat mentalki eustea izango da.

Zer esan gura duzu mentalki eusteagaz?

Urte osoan lehiatzen ibili ostean, denboraldia luzatzea eta maila honetako txapelketa bati aurre egitea oso gogorra da mentalki. Urduritasun eta tentsio asko pilatzen da bidean. Nekatuta zaude, baina sasoiari eutsi behar diozula pentsatzen duzu, hitzordura ondo heldu behar duzula. Edo, beharbada, hasten zara pentsatzen minutu gutxi izango dituzula munduko txapelketan eta horietan ondo egin behar duzula. Horrelako kontuak. Gorputzak atsedena eskatzen dizu, errugbia ez den beste zerbait egitea, baina egin beharra dago. Benetan gura edo desiatu behar duzu. Bestela, buruak ezetz esango dizu.

Gazterik onenekin zabilta. Eliteak, exigentziarik gorenak, zer irakasbide ematen dizu beste mailek ematen ez dutena?

Benetan zer gura duzun baloratzen ikasten da. Bide bat egin gura badut, horretarako zer aukera dauden eta horiek baliatzen ikasten da. Errugbian maila honetara heltzeko, gauza asko sakrifikatu behar izan ditut. Esaterako, nire

bizitza estiloa moldatu behar izan dut. Jende askok ez du hori egiten.

Atzera begirata, merezi izan dute sakrifizio horiek?

Bai. Beti ez da erraza izan. Sarritan dudak sortzen dira eta gauza errazak zailak direla ematen du. Une gaitzetan taldekideen laguntza eta animoak eskertzen dira. Ondo zabiltzala, eusteko bideari eta denak mereziko duela entzuteak laguntzen du. Gaur egun barneratu dut edo barneratzen hasi naiz errugbia dela nire bizitza, eta luzaroan horrela jarraitzea espero dut, asko gustatzen zaidalako.

Etxekoak joan dira San Frantziskora zugaz egotera?

Aita, ama eta ahizpak datoz. Babesik ez zait faltako.

Aholkularirik baduzu etxean?

Ama, dudarik barik. Lagunek emandako aholkuak eta babesa es-

“**Sarritan dudak sortzen dira. Une gaitzetan eskertzen dira taldekideen laguntza eta animoak**”

“**Hurrengo denboraldian ez dakit non egongo naizen, baina ez da Getxo taldean izango**”

kertzen ditut, jakina, baina ama da arazo bat dudanean nire deia jasotzen duen aurrenekoa. Batzuetan pentsatzen dut “ez diot deituko, gehiegi larrituko da-eta”. Deitu eta berbetan hasteagaz batera sumatzen du zerbait gertatzen bazait.

“**Guk gizonek baino gauza gehiago irentsi behar ditugu eta askoz gehiago kostatzen da gure lana bistaratzea**”

Errugbiko profesionala zara? Errugbitik bizi zara?

Errugbitik bizi naiz, baina ez dut kontraturik. Neskek ez dugu kontraturik, bekak ditugu. Diru-laguntzei esker bizi gara.

Gizonetan berdin gertatzen da? Hau da, kirola bera da sostengu gutxi duena ala gizonen eta emakumeen artean aldea dago?

Alde batetik, egia da errugbia ez dela futbola eta ez duela futbolaren oihartzunik, baina ezin dugu ahaztu gizonen eta emakumeen artean dagoen desberdintasuna. Hori igartzen da. Gizonek ez dute ADO bekarik [Olinpiar Jokoen Elkarteak ematen duen laguntza programa] zeren eta Olinpiar Jokoen eta beselakoetan ez dituzte horretarako behar diren emaitzak lortu. Baina, zailtasunak dituztenean, gizonei gehiago laguntzen dietela igartzen

da. Guk, azken batean, eurek baino gauza gehiago irentsi behar izaten ditugu eta askoz gehiago kostatzen zaigu egiten duguna bistaratzea eta baloratua izatea. Kontuan hartu behar da gizonezkoak ez dardela munduko txapelketan eta gu, ostera, bai.

Munduko txapelketa amaitzean, aspaldiko partez oporrak hartuko dituzu?

Bai. Pare bat astean hankak geldituz izango ditut. Gorputzak atsedena behar du, nahitaez. Errekuperatzeko funtsezkoa da geratzea eta gorputzari astia ematea. Dagoeneko banabil pentsatzen nora eta nogaz joan, eta zer egin.

Atsedean hartu ostean, Getxo errugbi taldeagaz denboraldi berri bat hasiko duzu?

Ez. Hurrengo denboraldian ez dakit non egongo naizen, baina ez da Getxon izango.

Zergatik?

Ohorezko Mailatik jaitsi egin gara aurten. Baina, horretatik aparte, denboraldi gogorra izan da eta, egia esanda, pentsatuta neukan giroz aldatzea. Ez dakit etxera bueltatuko naizen edo zer egingo dudan, baina, seguruenik, ez naiz Getxon egongo.

Baduzu talderen baten eskaintzarik edo bazabiltza zu zeu beste aukera batzuk aztertzen?

Heldu zait eskaintzaren bat, baina, oraingoz, ez dakit zer egingo dudan. Zentzu horretan ez dut erabakirik hartu, momentuz. Orain munduko txapelketan zentratu gura dut eta horren ostean pentsatuko dut zer egin.



Uribarri Barrutieta entrenamendu saio batean. Espainiako Errugbi Federazioa

Izurtzan Foseco enpresa ixtea aurreikusten dute, eta 42 lanpostu arriskuan daude



Izurtzako Foseco enpresako irudia.

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Vesuvius Taldearen barruan dagoen Foseco enpresak Bizkaiko egiturak berrantolatuko ditu eta egitasmo berria ez du tokirik Izurtzako enpresak. Ixtea aurreikusi dute eta, ondorioz, 42 langileen lanpostuak arriskuan daude.

Astelehenean egun osoko greba egitea erabaki dute langileek euren batzarrean. Elkarretaratzean ere batuko dira. Izan ere, astelehenean Vesuvius taldeko presidenteordea joango da Izurtzara enplegu-erregulazioko espedientea aurkezte-
ra, ELA sindikatuko iturriek jakinarazi dutenez. ELA, LAB eta plataforma independente batez osatuta dago langileen

batzordea. Foseco enpresako zuzendaritzak, bere aldetik, langileentzat irtenbideak bilatzen ari dela jakinarazi du ohar batean. Izurtzako enpresa ixteko erabakiak dakarren ondorioen jakitun direla eta langileentzat duina izango den Gizarte Plana lantzen dabilzala azaldu dute. Plan horrek Igorreko plantan birkokapenak, aurre-erretiroak eta kaleratze hitzartuak jasoko dituela aurreratu dute.

Erakundeen babes bila

ELA sindikatuak erakundeetara —Izurtzako Udalera, Eusko Jaurlaritzara zein Bizkaiko Aldundira— jotzeko asmoa duela adierazi du, erakunde horien inplikazioa bilatzeko.

Iñigo Peñaren kartelak irabazi du Izurtzako jaietako kartel lehiaketa

IZURTZA • J.D.

Iñigo Peñaren kartelak iragarriko ditu aurten Izurtzako jaiak. Udalak abiatutako lehiaketa irabazita, 250 euro eskuratu ditu Peñak. Dantzarien jantziko hainbat osagai eta kolore biziak dira karteleko elementu nagusiak. Aurten herritarrek erabaki

dute kartel irabazlea. Orain aste batzuk, minbizia prebenitzeko kanpaina bat egin zuten Izurtzan eta, ekitaldi hori egiten zela aprobetxatuta, Izurtzako Udalak postu bat jarri zuen kalean lehiaketara aurkeztutako kartel denekin. Peñaren lanak jaso zuen botorik gehien.

Bonbardaketa eta errefuxiatuak Otxandioko mural berriko irudian

Muraleko argazki batek 1936ko bonbardaketaren osteko ebakuazioa islatzen du eta otxandiarrek ere bere sasoiari errefuxiatuak izan zirela gogoratzea da helburua



Otxandioko sarrerako etxe bateko horman margotu dute murala.

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Otxandioko sarreran dagoen eraikin bateko horma oso bat hartzen du udalak egindako mural berri batek. 'Ongi etorri' goiburuararen azpian irudi bi ageri dira. Zuri beltzekoak gerra zibilaren eta bonbardaketaren ondorioz Otxandio ebakatu zuten unea jasotzen du. Koloretako irudia gaur egungoa da eta Europako herri batean Siriako errefuxiatuak besarkada batez hartzen ikusi daitezke bertakoak.

"Biktimei bizitza duin bat izan dezaten laguntzea, hori bada gure esku dagoen zerbait"

Gerretako biktima zibilak gogoratzea eta "Otxandion ongietorriak" direla adieraztea da mural berriaren helburua, Urtzi Armendariz alkatearen esanetan.

"Gerrak ezin ditugu eragotzi, baina gerrako biktimei ongietorria ematea eta bizitza duin bat izan dezaten laguntzea, hori bada gure esku dagoen zerbait. Bere momentuan otxandiarrek beste toki batzuetan ongietorriak izan ziren moduan, orain errefuxiatuak gure herrian ongietorriak izango direla adierazi gura dugu", azaldu du Armendarizek.

Otxandio bonbardaketa bat jasan zuen 1936an, eta herritar askok ihes egin beharra izan zuten. Uztailearen 22an, jaien barruan, urtero gogoratzen dituzte bonbardaketan hildakoak eta biktima izandako guztiak. Ildo horretatik, mural berria "Andikonako ekitaldiagaz lotuta egin dezakegun omenaldirik onena da", Armendariz alkatearen ustez.

Andikonako aurtengo ekitaldia domekan izango da, 13:00etan, bonbardaketa gertatu zen egunean. Sarraski hartako hildakoei

lore eskaintza bat egingo diete. Ondoren, koruak eta Otxandioko Bandak abesti batzuk kantatuko dituzte, eta Andikonako Foroko kideek testu bat irakurriko dute.

Eskolan lantzeko materiala

Gerra zibilak eta bonbardaketak Otxandion izan zuten eraginaren inguruko material didaktikoa prestatzen ari da udala. Material hori irailean hasten den ikasturterako prest izatea da asmoa, eta

1936ko bonbardaketako biktimak omentzeko ekitaldia domeka honetan izango da

ordutik aurrera Otxandioko eskolako gaztetxoek lantzea. Unitate didaktiko hori lantzen ibili den arduradunetako bat presente egongo da domekako ekitaldian.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2018ko uztailearen 20a
16. urtea - 730. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Durango estazio zaharreko lurren plana aurrera doa, batzorde jendetsu batean aurkeztu eta gero

Mari Jose Balier hirigintza zinegotziak batzordean iragarri zuen bezala, eguaztenean sinatu zuen dekretua

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Eusko Jaurlaritzak estazio zaharreko lurretarako duen planak aurrera darrai udaletxean. Sortzen duen interesaren seinale, martitzenean 50 bat lagun batu ziren udal batzordean, planaz informatzeko. Izan ere, batzordea publikoa izanik, bertaratzeko deia egin zuen Erabaki plataformak. Ordu bi iraun zuen batzarrean, Mari Jose Balier hirigintza zinegotziak (EAJ) iragarri zuen, biharamunean bertan sinatuko zuela plana martxan jartzeko dekretua, eta horrela egin zuen. Udal teknikariek eman zituzten azalpenak batzarrean; aipagarria da esan zutela ez dakitela uneotan Jaurlaritza zer obra egiten ari den geltokirako sarreraren inguruetan.



Batzordeetarako aretoa bete egin zuten informazio bila joan ziren 50 bat herritarrek.

"Durangon dauden etxe huts guztiekin, etxe gehiago behar dira?", galdetu zuen batek

550 etxeen eraikuntza izan zen herritarren kezka iturri nagusia. "Durangon dauden etxe huts guztiekin, etxe gehiago behar dira?", galdetu zuen pertsona batek. Jaurlaritzako sailburuak, Durangora etorri zenean, etxeekin aterako duten etekina planaren gastua estaltzeko erabiliko dutela aditzera eman

zuen. Bestalde, etxeek trafikoa sortuko dute inguruan. "Ikaragarria iruditzen zait Ezkurdi inguruan trafikoa sortzea", esan zuen emakume batek, biribilgune berria eta Askatasun etorbidea lotuko dituen errepide berriagatik.

"Ez al litzateke hobe erreferendum bat egitea?", bota zuen batek.

EH Bilduko eta Herriaren Eskubideako ordezkariak plana geratzeko eskatu zuten, Erabakik proposatu duen galdeketa

EH Bilduko eta Herriaren Eskubideako ordezkariak plana geratzeko eskatu zuten

Arkitektoak oniritzia ematen badu, dekretua sinatu beharra duela esan zuen Balierrek

gauzatu eta gero Hiri Antolamendurako Plan Orokorren (HAPO) baitan treneko plana berregokitzeko. Izan ere, HAPO berritzeko prozesua hasia du udalak, eta bertan zehaztuko da datozen urteetan Durangok zenbat etxe eta zer azpiegitura behar dituen. Baina arkitektoak oniritzia ematen badu, dekretua sinatu beharra duela esan zuen Balierrek, bestela "prebarikazioa" izan litekeelako. Oposiziokoek erantzun zioten gobernuak ematen dizkiola

irizpideak arkitektoari zer proiektugaz aurrera egin erabakitzeko.

Trazaduran aldaketa, bai

Trenbideko trazadura zaharrean errepide bat egitea dago diseinatuta, baina teknikariek azaldu zuten hori aldatu egingo dela, oinezkoiei eta bizikletei lehenetasuna emateko. Hor aldaketa egin badaiteke, planaren beste ataletan zergatik ezin daitekeen egin galdetu zuten oposiziokoek.

3.033 durangarrek sinatu dute galdeketa alde

3.033 sinadura batuta, herri galdeketa eskatzeko beharrezko sinadurak lortu ditu Erabaki plataformak. Sinadurak udaletxean erregistratu zituzten astelehen goizean. 3.033 durangarrek tren geltoki zaharreko lurren planaren inguruan erabaki gura dutela erakutsi dute horrela. "Sinadura hauei jaramon egingo dieten esperantzaz, Durango parte-hartzaile, atsegin eta berdeago baten alde borrokatzen jarraituko dugu", esan dute Erabakiko kideek prentsa oharrean.

Erroldatuen %10ek sinatuta, galdeketa eskatzeko aukera ematen diete Euskadiko tokiko erakundeen legeak eta Durangoko Parte-hartze ordenantzak.

Bonbardaketaren egileen aurkako kereila artxibatu egin dute berriro

Udalak Auzitegi Konstituzionalean errekurrituko du Bizkaiko Auzitegiaren erabakia



Iazko uztailearen 18an aurkeztu zuen udalak kereila, kolpe faxistaren urtemuga egunean.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Durango bonbardaketaren egileen aurkako kereila artxibatu egin du Bizkaiko Auzitegiak, eta udalak errekurritu egingo du. Iazko uztailearen 18an aurkeztu zuten kereila Durango epaitegian, eta urtarrilean artxibatzea erabaki zuen epaileak. Baina udalak Bizkaiko Auzitegiaren errekurritu zuen, eta oraintxe heldu da erantzuna.

Kereilaren sustatzaileetako bat izan zen Durango 1936 elkarreko Andoni Barreñak konfirmatu duenez, helegitea aurkeztuko du berriro udalak, kasu honetan Auzitegi Konstituzionalean.

1937ko martxoaren 31n 336 hildako eragin zituen erasoan Italiako Aviazione Legionariako militarrek parte hartu zuten, eta horien aurka jarri zuen kereila udalak. Gerediaga elkarreko Jon Irazabal ikerlariak 44 militarren izenak identifikatu zituen, eta argitzeke dago bateren bat biziirik badagoen ala ez. Momentuz, ikerketa alboratu du auzitegiak.

Gizonezko bat atxilotu dute bikotekideari eraso egitea leporatuta

DURANGO • M.Z.

Eguazten goizean gizonezko bat atxilotu zuten Durangon, bikotekideari eraso egitea leporatuta. Eraso Ebaristo-Bustintza kaleko etxebizitza batean gertatu zen.

Ertzaintzak jakitera eman duenez, etxeko oihiak entzun

Ertzaintzak jakitera eman duenez, eguaztenean atxilotutako gizonaren kasua ikertzen dabilta

eta Ertzaintzara deitzea erabaki zuen bizilagun batek. 10:30ean jaso zuten deia.

Momentu honetan, kasua ikertzen dabilzala jakitera eman dute.

Errefuxiatu sahararren eremutik lehen aldiz irten diren 6 ume daude Elorrion

Lajwad elkartearen deia erantzun, eta 6 familiak etxean hartu dituzte ume sahararrak



Ume sahararrak, harrera familiak eta udal arduradunak, elkarregaz ateratako argazkian.

ELORRIO • MARKEL ONAINDIA

Tindufeko (Aljeria) errefuxiatu sahararren kanpamentuetatik lehen aldiz irten diren sei ume etorri dira Elorrion, basamortuko tenperatura altuetatik babestu, udaz gozatu eta osasun azterketak egitera. Familia boluntarioen partaidetza ezinbestekoa izan da umeentzat hain garrantzitsua den egonaldia egia bihurtzeko. Lajwad elkarteak eginiko deia erantzun

Partaidetza ezinbestekoa izan da, umeentzat hain garrantzitsua den egonaldia egi bihurtzeko

Harrera ofiziala egin zien Idoia Buruaga alkateak udaletxean, 2009az geroztik egiten duten lez

zioten familia horiek. Hilaren 2an umei harrera ofiziala egin zien Idoia Buruaga alkateak udaletxean, 2009az geroztik egiten duten lez.

Joan zen astean, Durangaldean 34 umeri egin zieten harrera informatu zuen ANBOTOK, baina kopuru horretan ez zeuden Elorrion etorritakoak. Beraz, guztira, 40 dira uda hemen pasatuko duten umeak.

Mendizalez eta txirrindulariz beteko da Garai, martxaren bosgarren edizioan

GARAI • MARKEL ONAINDIA

Garaiko Triatloi Taldeak eta Trumoitte kultur elkarteak antolatuta, V. BTT martxa egingo dute bihar. Bizikletako erron-

Herritarrek doan parte hartu ahalgo dute, eta gainerakoek 7 euro ipiniko dituzte

kaz aparte, oinezko ibilbidea ere egingo da aukeran.

Ibiltariak 09:00etan irtengo dira, 18,5 kilometroko bidea osatzeko. Txirrindulariek, ostera, 09:30ean irten eta 29 km egingo dituzte. Herritarrek doan parte hartu ahalgo dute, eta gainerakoek 7 euro ipiniko dituzte.

Berrizko udaletxea inguratzen duen harresiaren zati bat botako dute

BERRIZ • M.Z.

Udaletxe eta eskola inguruak itxuraldatzeko lanak egingo dituzte Berrizen. Udaletxea inguratzen duen harresiaren zati bat botako dute, bolatoki ingurura ematen duen zatia, hain zuzen, eta hor gune zabal bat eraiki eta lorategi bat egingo dute. Horrez gain, eskolara doan zatia moztu egingo dute, eta goiko aldean baranda bat jarriko dute, segurtasuna bermatzeko. 191.600 euro inguru bideratuko dituzte lan hauek egiteko.

Uztaillaren 24tik 29ra bitartean, Santixako jaiak ospatuko dituzte Atxondon

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Martitzenean, uztaillaren 24an, txopoa jarrita emango diete hasiera Santixako jaiak. Jai Batzordekoek hainbat ekintza antolatu dituzte asteburu gutzirako. Zapatuan, esaterako, paella lehiaketa egingo dute. Lehiaketa honek hainbat atxondar batzen ditu urtero. Gauean, DJ Mariskalen saioa egingo da, eta baita bariku gauean ere.

Jaiak mozorro egunagaz emango diete amaiera, uztaillaren 29an.

Txintxirri Ikastolako, Besaide dantza taldeko eta Gaztetxeko kideek jaurtiko dute jaietako txupina

Elorrioko aurtengo Ferixa Nausikoak ofizialki irailaren 1ean, 20:00etan, herriko hiru elkarteek jaurtitako txupinazagaz hasiko diren arren, aurreko egunetik, abuztuak 31, jai giroan murgilduta ibiliko dira elorriarrak

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Aurten mende erdi bete dituzten Txintxirri Ikastolako eta Besaide dantza taldeko kideek eta 30 urte bete duen Gaztetxeko lagunek botako dute Ferixa Nausikoetako txupinazoa. Urtero legez, Jai Batzordeko kideek aukeratu dute nortzuk arduratuko diren pregoia irakurtzeaz eta txupinazoa jaurtitzear.

Abuztuaren 31rako Gaztetxean eta txosnagunean hainbat ekintza antolatu dituzte

Ofizialki jaiak irailaren 1ean, 20:00etan, hasiko diren arren, aurreko egunetik jai giroan murgilduta egongo dira Elorrion. Izan ere, zenbait ekintza abuztuaren 31rako antolatu dituzte, Gaztetxean eta Txosnagunean, besteak beste. Gaztetxean, DJ Bull arituko da, gauer-

dian. Txosnagunean, Arkada Social eta Hexen taldeek kontzertuak joko dituzte.

Abuztuaren 31tik irailaren 10era arte ez da jai giroa faltako Elorrion. Irailaren 7an Zea Mays

eta Koban taldeek kontzertua eskainiko dute Txosnen batzordeak antolatuta.

Aizpuru, kartel irabazlea
Bestalde, iraileko lehen egunean

hasiko diren Ferixa Nausikoak jaiak iragarriko dituen kartela Sabina Aizpuruk irabazi du, 'Danontzako' lanagaz. Aizpuru elorriarrak ANBOTOK emandako 500 euroko saria jasoko du.



Atzo egin zuten jaiak aurkezteko ekitaldia.



Atera etekina Anbotoren Lagun txartelari!

Gozatu abantaila eta deskontu hauetaz:



3D PRINT COLOR

-%10 tinta- eta toner- kartutxo bateragarrietan.
-%5 tinta- eta toner- kartutxo originaletan.

EPOCA SUKALDEAK

-%10 sukalde nahiz etxeko altzarietan.

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

-%10 sarreran deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

GIMNASIO ZIRKIN

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.
- Bazkide direnei 10 saioko solarium bonua doan.

HITZ LIBURU-DENDA

-%10 euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

-%15 sarreran.

IURRETA KOPISTEGIA

-%5 eskola eta bulego materialean.
-%5 musika, opari eta liburuetan.
Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

-%15 eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

-% 5 deskontua 100€-ra arteko erosketetan.
-%10 deskontua 100€-tik gorako erosketetan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

-%5eko deskontua kosmetika ekologikoko produktuetan.
-%15eko deskontua Colnatur Complex kolageno-magnesio produktuan.

OPEN KLUB

-%20ko deskontua matrikulan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

- Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.

URRIKE LIBURU-DENDA

-%5 liburuetan.
-% 10 papergintzan.

UR URDAIBAI

-%25 Anbotoren lagunarentzat eta horren lagun batentzat urdaibaiko itsasadarraren jaitsieran, piraguan edo stand up paddelean.



EPOCA SUKALDEAK

-%10 sukalde nahiz etxeko altzarietan.



LANDAKO OPTIKA

%15 eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.



MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

% 5 deskontua 100€-ra arteko erosketetan.
%10 deskontua 100€-tik gorako erosketetan.



Anbotoren Lagunak
Lekuan lekuko lagunak

www.anboto.org · lagunak@anboto.org · 946 816 558



Anboto Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak

Abadiño Udalak Muntzaraterako semaforoen zikloak egokitu ditu

ABADIÑO • A.M.

Muntzaratz auzoko sarbideko hiru semaforoen zikloak egokitu ditu Abadiño Udalak. Durango-Elorrio N-636 errepideko Abadiño zatian biribilgunea egin bitartean, auzotarren sartu-irtenak erraztea gura du udalak horrela. Behin-behineko erabakia da semaforoen zikloak egokitzea, izan ere, biribilgunea eraiki ostean, semaforoak kentzea izango da asmoa; errepide horretan espaloak zabaldu eta trafiko astuna debekatzeko asmoa du udalak.

Auzotarrek hainbat protesta egin dituzte azken asteetan, semaforoen arazoari konponbidea ematea eskatzeko. Irailean beste bilera bat egiteko deia egin dute.

Zaldibarko Goierri auzoko Santa Marina jaiak ospatuko dituzte asteburuan

ZALDIBAR • A.M.

Martitzenean Donien Atxa altxatu ostean, Santa Marina jaiak ospatzen ari dira Zaldibarko Goierri auzoan. Denetarik ekintzak daude programaturik auzotarrak festan murgiltzeko. Barikuan, kantu eta dantza jaialdia eta bolo-jokoa egongo dira. Zapatuan, bakailao eta paella txapelketak egingo dituzte; gauean, Luhartek erromeria eskainiko du. Domekan amaituko dira jaiak, traka beziagaz.

Amamen eta aititen eguna ospatuko dute datorren asteko eguenean

MAÑARIA • J.D.

Uztailearen 26a amamen eta aititen eguna da, eta Mañariko Ursula Donea nagusien elkar-teak bazkari batez ospatuko du urteroko ohiturari eutsiz. 13:00etan meza egongo da, eta, ostean, Errekondo jatetxean bazkalduko dute. Normalean, 40 bat lagun batzen dira bazkaritara. Parte hartu gura duenarentzat gaur da izena emateko azken eguna. Elkarteko bazkideentzat 10 euro da, eta bazkide ez direnentzat, 20 euro.

Trabakuan errepidea zeharkatzeko gaineko pasabidea egitea aukeratu dute auzotarrek

Eguazteneko batzar irekian udalak aukera bi proposatu zituen: gaineko pasabidea eta lur azpiko tunela. Aukera bakoitzaren abantailak eta desabantailak entzun ostean, gaineko pasabidea egitea aukeratu zuten batutako 35 bat auzotarrek, gehiengo zabal batekin

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Trabakuan BI-633 errepidea zeharkatzeko bide gainera pasabide bat egingo du udalak. Hori erabaki zuten eguazteneko batzar irekira batu ziren Goita, Gereia eta Longako 35 bat auzotarrek gehiengo zabal batekin.

Igor Agirre alkateak eta Sives-tre Berasategui udaleko arkitektoak eman zituzten azalpenak.

Berasateguik azaldu zuenez, udala denbora luzean ibili da Bizkaiko Foru Aldundia pasabide bat egiteko konbentzitu guran, "baina horretarako ez dutela aurrekonturik izan da erantzuna". Beraz, udalak hartu du lanak egiteko ardura. Izan ere, errepide horretan autoak abiadura handian ibiltzen dira eta arrisku-tua da autobusa hartzeko bidea zeharkatu behar duten oinezkoen-

Gaineko pasabidearen abantailak bat da puntu beltz bat sortzea ekidingo litzatekeela

Orain proiektua egiten eta baimenak lortzen hasiko dira 2018a amaitu aurretik lanak esleitzeko



Eguaztenean Goita auzoko elkarteko lokalean egindako batzarrera 35 bat lagun batu ziren.

tzat zein abereekin igaro behar duten artzaintzat.

Aukera bi proposatu zituzten batzarrean: gaineko pasabidea eta lur azpiko tunela. "Aukera bakoitzak bere abantailak eta bere desabantailak ditu", argitu zuen Berasateguik xehetasunetan sartu aurretik. Lur azpiko tunelaren abantaila nagusia abereentzako igarobide eroso izango litzatekeela da. Gaineko pasabidearen abantaila nagusiak dira puntu beltz bat sortzea ekidingo litzatekeela, baimenak lortzea errazagoa izango zela eta merkeagoa dela: 467.600 euro balio-ko luke, tunelak baino 58.000 euro gutxiago, udaleko aurreproiektuaren arabera.

Azalpenak eman ostean auzotarren iritzia entzun eta zalantzak argitu zituzten: igarobideak egiteko materialen ingurukoak izan ziren duda batzuk. Abereak zituztenek, pasabidea egitekotan, abereentzat ahalik eta egokien jartzeko eskatu zuten. Batzuen eta besteen iritzia entzun ostean boz-keta egin zuten.

Udalak 2018ko soberakina erabili gura du obra egiteko. Horregatik, aurten egin gura dute proiektua eta urtea amaitu aurretik esleitu gura dituzte lanak. Modu horretara, datorren urteko lehenengo hilabeteetan hasiko lirateke lanak. Bizkaiko Foru Aldundiari diruz laguntzeko eskatuko diote.

Hilean 250 eurora arteko laguntzak emango dituzte bizilekuak alokatzeko

18 eta 35 urteko zornotzarrei bideratuta dago; diru-sarrerak urtean 28.000 euro gordinetik beherakoak izatea da laguntzak jaso ahal izateko baldintzetako bat

ZORNOTZA • J.D.

Herriko gazteei emantzipatzen laguntzeko helburuz, etxebizitzak alokatzeko laguntzak jasotzen dituen ordenantza onartu zuten azken udalbatzarrean. Zornotzan etxebizitza bat alokatuta duten edo urriaren 31 baino lehen horretarako konpromisoa erakusten duten 18 eta 35 urtera arteko gazteei bideratuta daude.

Diru-laguntzaren zenbatekoa kasu bakoitzean ezarriko da, gehienez ere 250 euro hilean eskari bakoitzeko, 12 hilabetez gehienez. 28.000 euro gordinetik beherakoak izatea da laguntzak jaso ahal izateko baldintzetako bat. Kontratuek ere hainbat baldintza bete behar dituzte.



Joan zen barikuko udalbatzarrean aho batez onartu zuten ordenantza.

Udalak 52.000 euro erabiliko ditu Mañariku Etxebarria auzo-bidea berritzeko

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak 52.000 euro erabiliko ditu asfaltatu barik dagoen Mañariku Etxebarria auzo-bidea konpontzeko. Goiurriko BI-3341 errepidetik sartzen da bide horretara. Bideak 400 metroko luzera eta hiru bat metroko zabalera du. Lanak datorren hilabete bietan amaitzea aurreikusi dute udal arduradunek, oharrean azaldu dutenez.

Hainbat lan egingo dituzte Mañariku Etxebarria bidea hobetzeko. Besteak beste, drainatze sare txiki bat egingo dute bidearen erdialdean, putzurik sortu ez dadin. Bidearen ezker aldean areka bat egingo dute. Horrez gain, bidea garbitu eta argiteria berrituko dute zatirik arriskutsuetan. Gainera, bide guztia asfaltatuko dute.



IURRETA

Tellitu-n udaberrian hasiko gara eraikitzen

*3 logelatako
6 etxebizitza*

*2 logelatako
11 etxebizitza*

*Garajea eta
trastelekua barne*



DURANGO LANDAKO GUNEA

*Durangoko herrigunean,
bista ederrekin*

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyexpe.com

Jone Guenetxea
TOKIKOMeko
presidentea



Egin dezagun ttap!

Irakurri, ukitu, ikusi eta entzun daitekeen hedabide digitala jaio da: ttap. Testu hau irakurtzen ari zaren horrek mugikorra edo tableta izango duzu gertu oraintxe bertan, edo agian, eskuen artean. Trenean, autobusean, itxaronaldi batean, kafe bat hartzean zein patxada handiz etxeko egongelan mugikorrean begiratzea ohikoa bihurtu da. Gailu bi horiek ezinbestean sartu dira gure bizitzetan, eta zuzenean eragin dute informazioa kontsumitzeko ohituretan. Hedabideok ere sasoi berri horietara egokitu guran sortu dugu ttap. Aktualitateko elkarrizketa eta iritziez gain, moda, teknologia, bidaiak, zinea zein literatura arloko gaiak lantzen dira bertan. Bideoak, audioak, testuak, argazkiak... Irudiak protagonismo handia du hedabide berri honetan. Eta hori guztia euskaraz jasotzeko aukera duzu aplikazioa deskargatuta. Momentuz, Bizkairako eta Gipuzkoarako edizio bana kaleratuko dugu uztailearen 27an. Eta, estreinaldirako, Alex Sarduy musikariaren eta Nerea Garmendia aktorearen elkarrizketek gorpuztu dituzte ale digital biak. Hau aurrerapen bat baino ez da. Irailaren 21etik aurrera, barikuro ale berriak kaleratuko ditugu. Estreinaldiaren ostean, sartu *ttap.eus* atarian eta deskargatu bertatik. Gustatzen bazaizu, pasatu zure lagunei, komentatu sare sozialetan, kuadrillako whatsapp taldera bidali mezua...

Eta zergatik ttap? Mugikorreko pantaila atzamarragaz mugitzean egiten den keinuari ingelesez *tap* esaten zaiolako, eta euskaraz ere antzeko berbaren bat beharko genukeela pentsatu genuelako. Dagokienek barkatuko ote digute atrebentzia.

Bestalde, alde askotako elkarlanari esker sortutako proiektua da hau. Batetik, Tokikomen aterkipean abentura honetan batu garen Baleike, Goiena eta Anboto hedabideak. Bestetik, arlo honetan eskarmentu handia duten Kataluniako Esguard aldizkari digitalaren sortzaileak. Ikasteko gogoaren eta esperientziaren baturak bere fruituak emango dituela ziur nago. Beraz, egin dezagun ttap!

“%100 hedabide digitala da ‘ttap’; eskuko telefono zein tabletetik irakurri, ukitu, ikusi eta entzun ere egin daiteke

Euskarazko aldizkari digitala uztailearen 27tik aurrera deskargatu ahalko da 'ttap.eus' webgunean

DURANGO • TOKIKOM

Euskarazko komunikabide berri bat jaio da aste honetan: Ttap aldizkariak bere zero zenbakia aurkeztu du Donostian, eta irailetik aurrera astero-astero iritsiko da irakurleen poltsikoetara. Anboto (Durangaldea), Goiena (Debagoiena), Baleike (Zumaia) Tokikom eta Esguard (Bartzelona) dira proiektuaren bultzatzaileak. Monika Belastegi da hedabide berritzaile honen zuzendaria.

Zer da Ttap?

%100 hedabide digitala da; eskuko telefono zein tabletetik irakurri, ukitu, ikusi eta entzun ere egin daiteke. Izan ere, Ttap erabat multimedia da, eta edukiak hainbat formatu eta euskarritan landuko ditu, erabiltzaileari esperientzia atsegina eta interesgarria eskaintzeko. Testuekin batera, bideoak, audioak eta grafiko interaktiboak ere eskainiko ditu.

“**Aldizkariaren zenbaki bakoitzak 16 orrialde izango ditu, eta ordu laurden batean irakurri ahal izango da**

Edukiei dagokienez, zein informazio landuko duzue?

Ttap-ek gertuko gaiak landuko ditu, erraz eta azkar kontsumitzeko moduan. Batez ere, inguru urbanoan eta garraio publikoan kontsumitzeko egingo dugu Ttap, telefonoa aldean hemendik hara dabiltzan horientzat. Aldizkariaren zenbaki bakoitzak 16 orrialde izango ditu, eta gutxi gorabehera ordu laurden batean irakurri ahal izango da. Hala ere, edukietan sakondu gura duenak beti izango du horretarako aukera, mimo handiz landutako audio eta bideo piezen bidez.

Ttap izena nondik dator?

Ingelesez mugikorreko pantaila ukitzeari *tap* esaten diote. Hari horri tiraka, euskaraz antzeko berbarik ez zegoenez, Ttap izena bururatu zitzaigun.

Edizio bi izango dituela aurreratu duzue.

Edizio bi izango ditu momentuz, bat Bizkaian eta bestea Gipuz-



Monika Belastegi kazetaria da ttapen zuzendaria.

koan, eta kolaboratzaile zerrenda zabal eta plurala: Pilar Kaltzada, Ander Izagirre, Hasier Hilario, Izaro Andres, Joseba Barandiaran, Arantxa Urretabizkaia, Unai Iturriaga, Joseba Sarrionandia, Lara Izagirre, Arantza Santesteban... **Zelan sortu da Kataluniako hedabideekin elkarlanean proiektua abiatzeko aukera?**

Aurretik ere bagenuen kontaktua Kataluniako hedabideekin. Ttap-

en oinarria den Esguard aldizkari digitalak 6 urteko ibilbide oparoa du Katalunian. Publikoak oso ondo erantzun dio han formatu berri honi. Azken urteotan Esguard-en pilotutako esperientzia Ttap-en baliatu guran, elkarlanean oinarritutako proiektua jarri dugu martxan.

Zer egin daiteke zero zenbakia irakurtzeko?

Zero zenbakia jaso gura duenak

ttap.eus webgunera joan eta iOS zein Android aplikazioa deskargatu behar du uztailearen 27tik aurrera. Aplikazio horrek kiosko moduan funtzionatuko du, eta zero zenbakia zein aurrerantzean kaleratzen diren guztiak deskargatu ahalko dira bertatik. Gainera, abuztua amaitu bitartean deskargatzen duten guztiak mugikor edo gailu baten zozketan parte hartzeko aukera izango dute.



JOSE MARI URIARTE

Hareek denporak!

Arripausuetan bainatu eta jolasten ziren umeak

Udako tenperatura beroak etorri dira azkenean, eta, freskatzeko asmoz, asko dira hondartzetara edo igerilekuetara joaten direnak. Zer hoberik uretan txonbo egitea baino? Batzuek errekek eta presak aukeratu dituzte, hamarkada batzuk atzera umeen artean ohikoa zena.

Durangoko Arripausuetan, adibidez, asko ziren bainua hartzen zuten umeak. Jose Mari Uriarte historialariak 1980an

ateratako argazki honetan ageri denez, inguru horretan ohikoak ziren umeen jolasak.

"Hor alboan, presan, igeri egiten ikasi nuen, hainbat durangarrek bezala, kutsadura industrialak ezagutzen ez gunden garaian", kontatu du Uriartek. Sarrionandiak ere inguru hori gogoan du *Ibaia* abestian: "Erreka labur mehe, herdoil urez betea. Han ibiltzen ginen, antzina, hango harripausuetan". **M.O.**

Sei hankako mahaia

Julian
Rios Santiago
SQ-2D



Herritarrak edo negozioia

Asteartean, biztanleak benetan parte hartzen ikusi genituen. Batzordeko presidentearen gogoz bestera, plataformaren batetik zein euren kabuz joandako 50 lagun urbanismo batzordean egon ahal izan ziren azkenean. Bertan, teknikariek estazio zaharreko proiektua aurkeztu zuten, labur-labur. Laster agertu ziren zalantzak. Hauexek dira zenbait herritarrek dituztenak:

Sasikoa eta Alluitz kaleetan trafikoa asko handituko da, kaleok Askatasun Etorbidearekin lotzeko biribilgune berri bat egingo delako Ezkurdiko ume-parkearen ondoan. Horrela, askoz ere ibilgailu gehiago ibiliko da hiru ikastetxe eta ambulatorioa dagoen gunean.

Badago hainbeste etxeren beharrezko justifikatzen duen txostenik?

Egin al da ingurumen-inpaktua aztertuko duen ikerlanik? (txosten honek proiektua geldiarazi lezake).

Hainbeste zalantzaren aurrean, gobernu taldearen erantzuna ez zen inoren gogokoa izan. Dorreak eraikitzeke justifikazio bakarra espekulazio urbanistikoa izan zen, eta "egitera derrigortuta" daudela eta "dekretua bihar sinatu" lezaketela gaineratu zuten. Eta hauxe nire galdera: nork derrigortuta? norentzat derrigortuta?

Biztanleei argi geratu zaien bakarria da egitasmo hau Eusko Jaurlaritzak inposatutakoa dela (Durangon gobernatzen duten alderdi bereko parlamentariak), eta hartu beharreko erabakia alderdi politiko horiek hartuko dutela. Bi administrazio publiko adostasun batera iristeko gai ez badira, herritarrentzat onena bilatu barik higiezinaren negozioaren atzetik dabilzalako, zer ondorio atera daiteke administrazio horiek gobernatzen dituztenei buruz?

Durangaldea asteen



Euskaraldian ahobiziaz eta belarriprestak izango diren hamaikakoa aurkeztu dute

Mallabia Mallabiko herritarrak bariku iluntzean batu ziren, plazan, Euskaraldiko hamaikakoa aurkezteko. Ekimen honetan, herriko Euskaraldiko batzordekide batek ekimenaren berri eman zuen, eta, ondoren, hamaikakoa aurkeztu zuen. Talde honetako kideak azaro-abenduko ahobiziaz eta belarriprestak izango dira.

Afaria eginda jarriko dituzte martxan Argiñetako Kofradi jaiak, abuztuaren 3an

Elorrio Afaria eginda abiatuko dituzte Argiñeta auzoko jaiak, abuztuaren 3an. Abuztuaren 4an, meza, kofradi bazkaria, afaria, erromeria eta bolo txapelketa izango dira. Abuztuaren 5ean, auzoko dantza zaharrak eta umeentzako parkea. Abuztuaren 6an, meza, paella jana eta afaria. Erromeria giroan amaituko dituzte jaiak.

Iritzia

Buelta asko eman ondoren, joan zen zapatu goizean pasatutakoari buruz idaztea erabaki dugu; gertatutakoa kontatzea: Sevillan izan zen, eta guri gertatu zitzaigun. Baina Bilbon, Alacanten, Donostian edo beste edonon izan zitezkeen, eta bakarrik egon gitezkeen.

6:30-7:00 inguruan, Sevillako tren geltokian geunden hiru lagun (emakumezkoak hirurak), aireporturako autobusaren zain. Jendea parrandatik bueltan zebilen eta 7 bat pertsonaz osaturiko talde bat (gizonezkoak guztiak) gure ondotik pasatzean, barre artean komentatu zuten "hay mucho lobo suelto". Eta gure ondotik pasatzean "qué, ¿nos hacemos una de la manada?", esan zuten ozenago, guk entzuteko moduan.

Joan egin ziren eta buruari bueltaka geratu ginen, nola erantzun genezakeen pentsatzen...

Zer egin dezakegu in "justizia"ren ekintzen bidez normalizatu eta babestu den egoera honen aurrean?

EZ da barregarria. EZ da eredugarria izan behar. Zer ari gara egiten? Zer jasan behar dugu? Noiz arte? Eta bakarrik egon izan bagina momentu horretan? Eta zuri gertatuko balitzazu?!

Amaia Morales, Itsaso Basauri eta Enea Pinillos

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#nobedadeak



HELDUENTZAT
AZALBERRITZE BAT
Esti Mtez. Diaz de Cerio
2018



UME ETA GAZTEENTZAT
NIRE OINEN AZPIAN
Emmanuelle Houssais
2018



MUSIKA
MUTIL DANTZAK
Aiko
2018

CERAMICAS
MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
Chimeneas
ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

BODEGUILLA
TRAÑA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

ABADIÑON, GEREDIAGA AUZOAN SALBADORE JAIK 2018

Abuztuak 3, barikua

20:00etan "Donien Atxa" jaso eta txapliguekin jaiari hasiera ematea.

21:00etan Jai-batzordeak, EUSKAL OKELAZ egindako gisatua banatuko du jai eremura bertaratutako guztien artean.

22:30ean "PURO RELAJO" Musika taldeagaz mexikar erromeria.

Abuztuak 4, zapatua

18:00etan "ASTO LASTERKETA" Kaskoa beharrezkoa da. 16-18 urte artekoek gurasoen baimena beharko dute.

19:00etan "TORTILLA TXAPELKETA"-n izen-ematea. Tortillak 20:00etan aurkeztuko dira.

22:30ean, BERTSOLARIAK:

Ametz Arzallus
Maddalen Lujanbio
Andoni Egaña
Unai Iturriaga
Gai Jartzailea: Maite Berriozabal.

00:00etan, erromeria "LUHARTZ" taldeagaz

Abuztuak 5, igandea

12:00etan Meza
Meza ostean "HAMABI HARRI" dantzarien eta irlanderen dantza saioa.

14:00etan "BAKAILAO TXAPELKETA" goizean zehar pil pil erara egindako kazuelak aurkeztuko dira.

17:00etan, "MUS TXAPELKETA"

18:00etan "IGEL TXAPELKETA"

20:30ean "ERROMERIA" Ansorregi eta Larrañagagaz.

21:00etan: "ERROMERIA AFARIA" (Entsaldada mistoa, saiheskia eta arroz-esnea. Edaria eta Kafea).

Abuztuak 6, astelehena

12:00etan Meza

Ohi denez, aureskua eta atzeskua dantzatzeko dituzte jarraian.

Ordu batak aldera, jai batzordearen txosnan, kangrejoak banatuko dira.

Eguerdiko erromeria Lander eta Jon Ander trikitilariekin.

13:00etan "IGEL TXAPELKETA"

14:00etan "PAELLA TXAPELKETA" goizean zehar egindako paellak aurkeztuko dira

17:00etan, "BRISKA TXAPELKETA"

18:00etan, "UME JOLASAK"

Joko kooperatiboak lagun hartuta. Jokoak denentzat, sariak denentzat.

20:30ean Eusko Labeldun "Lumagorri" oilasko izterrak dastatu ahal izango dira, 2€ren truke.

Ondoren, "Mirari, Aitziber eta Andonegi"-gaz erromeria

00:00etan jaien aldeko errifaren zozketa eta jaien amaiera txokolate beroagaz.

ARGAZKI ERAKUSKETA:

Jai egunetan auzoko hainbat argazki jarriko dira ikusgai. Hamabi Harrik urtean zehar egindako ekitaldietan ateratako argazkiak ere ikusi ahal izango dira.

OHARRAK:

Erromeria afaria 12 euro izango da, eta aurrez txartela erosi beharra dago. Aurten ere jaien aldeko errifa atera da eta txosnan egongo da salgai.

Jai batzordea ez da jaietan gerta daitezkeen ezbeharren erantzule egingo. Aurtengo jaietan ere, txosnan kamisetak egongo dira salgai!

ANTOLATZAILEA: Gerediaga auzoko jai batzordea.

JAIAK!

■ Garai + Mañaria + Mallabia



GARAI MAÑARIA MALLABIA

2018ko UZTAILA eta ABUZTUA

Garaiko jaiak 2018

Uztailak 21, zapatua

Garaiko V. Mendi martxa.**09:00** Oinezko martxa.**09:30** BTT martxa.

Uztailak 22, domeka

14:00 Jubilatuen bazkaria.

Uztailak 24, martitzena

19:00 Donien Atxa jartzea.

Ondoren ezpata-dantzarien azken entsegua.

Ondoren, Lumagorri oilasko pintxoak dastatzeko aukera.

21:30 DJ BULL Trumoitte Kultur Alkartearen eskutik.

Uztailak 25, eguaztena

10:30 Txistulari, dantzari eta agintarien kalejira.**11:00** Meza Nagusia San Migel Eleizan.

Ondoren, Santiagoren irudiaren ohiko prozesioa

Eleizabarriraino, agintariena eta Gernikako arbola dantzatuz.

Geroago, ezpata-dantzarien saioa.

Ondoren, orogarri erakutsiko dute frankismoaren biktimak gogoratzeko eta omentzeko.

18:30 Erregelen erakustaldia.

Uztailak 26, eguena

10:30 Txistulari, dantzari eta agintariekin kalejira.**11:00** Meza Nagusia Eleizabarrin. Ondoren, Santiagoren irudiaren prozesioa parrokiaraino.

Ondoren, ezpata-dantzariak plazan. Jarraian, gizonezkoen erregelak eta geroago emakumeenak.

18:00 Tortilla-txapelketa. Partaideek osagaiak ekarri beharko dituzte: arrautzak, olioia, kipula, patatak eta gatza.

SARIAK Trumoitte Kultur Alkartearen eskutik :

1. Txapela eta tortillari buelta emateko platera.
2. Zartagina.
3. Egurrezko mahai tresnak.

21:30 "OBANEUKE" erromeria.

Uztailak 27, barikua

17:00 V. Duetloi txikia frontoian Garaiko Triatloi Taldearen eskutik.**17:00 Briska txapelketa** (Izen-ematea 5€ bikotea).

SARIAK Trumoitte Kultur Alkartearen eskutik:

1. Txapela eta botila bi txanpan.
2. Botila bi ardo.
3. Karta-sorta.

19:00 Ardo-dastaketa Mikel Garaizabalen eskutik.**22:30 STORM.** Ondoren, DJ JO TA TXO Trumoitte Kultur Alkartearen eskutik.

Uztailak 28, zapatua

13:00 Poteoa txarangarekin, Trumoitte Kultur Alkartearen eskutik.**14:30 Herri bazkaria.****22:00 DRINDOTS.**

Uztailak 29, domeka

11:30 Mus txapelketa (Izen ematea 5€ bikotea).

SARIAK Trumoitte Kultur Alkartearen eskutik.

1. Txapela eta botila bi txanpan.
2. Botila bi ardo.
3. Karta-sorta .

12:00 Pintxoak prestatzeko ikastaroa umeentzat, Trumoitte Kultur Alkartearen eskutik.**14:00 umeentzako bazkaria** Trumoitte Kultur Alkartearen eskutik (txartelak tabernetan, 5€ren truke).**17:00 "BUALA" antzerkia.**

Uztailak 30, astelehena

18:00 Herri-krono igoera.**22:00 Bertsolariak.**

- Uxue Alberdi
- Alaia Martin
- Unai Iturriaga
- Igor Elortza
- GAI JARTZAILEA: Ainhoa Urien

23:30 LUHARTZ.

Uztailak 31, martitzena

11:00 Meza Nagusia.

Ondoren, herriko umeen dantza saioa.

Geroago, Durangaldeko Igel Txapelketa (Izen-ematea: 2€).

SARIAK

1. Pernila.
2. Untxi bi.
3. Gazta.

18:30 Asto-proben erakustaldia.

- Irazola (Mallabia).
- Satxibar (Etxebarri).
- Koldo Bidaurrezaga (Larrabetzu).
- Anarketa (Garai).

SARIAK Trumoitte Kultur Alkartearen eskutik :

1. Manta eta 400€
2. Garaikurra Jokin Arregi Indusketa lanak emanda eta 350€
3. Garaikurra Kimu Loradendak emanda eta 300€
4. 250€ eta botila bi txanpan

21:30 Herri-afaria (nork berea ekarri beharko du).

**Santixau jai
zoriontsuak
opa dizkizuegu!**



GARAICO UDALA



Dantzariak protagonismoa izaten dute Garaiko jaietan.

Frankismoaren biktimak omenduko dituzte Garain

Gerediaga elkarteak azterketa egin ostean, frankismoaren eraginez herritar bi hil zirela jakin dute; horiek gogoratzeko ekitaldia egingo dute plazan, uztaillaren 25ean

JAIK • MARKEL ONAINDIA

Frankismoaren biktimak omenduko dituzte Garain lehen aldiz, eta herriko jaiak aprobetxatuko dituzte helburu horretarako. Uztaillaren 25ean, biktimen omenezko oroigarri bat inauguratuko dute udaletxe aurrean, zenbait senide bertan direla. Udalak Gerediaga elkarteagaz batera antolatu du ekitaldia, elkarre hori ibili baita biktimen inguruko informazioa aztertzen.

Biktimen omenezko oroigarri bat inauguratuko dute udaletxe aurrean, zenbait senide bertan direla

Gerediagako Jon Irazabal ikerlariak kontatzen duenez, garaitar bi hil ziren Durangoko bonbardaketan, 1937ko martxoaren 31n. Bata Miguel Zabala Mazaga 23 urteko gudaria, Emaldi baserrikoa, eta bestea goiz hartan azokara bajatu zen Maria Narbaiza Ogiza 16 urteko gaztea, Beratugoikoa baserrikoa. Gainera, gerran desagertu bat egon zen, Tomas Otaolea Areitio,

Artezahar baserrikoa. Gerraostean kartzelara bidalitako hamabost bat lagunengatik zerrenda ere osatuta dauka Irazabalek.

Garaiko gomuta ekitaldia hilaren 25eko eguerdian izango da, dantza saioaren ostean.

Jai giroan, kronoigoera herrikoa

Aurtengo nobedadeetako bat kronoigoera herrikoa izango da, uztaillaren 30ean. Ideia bitxi honen jatorria aspaldikoa da, urteak atzera Trumoitte ingururaino ere lasterketa bat egiten ei zelako. Azken urte hauetan ideari bueltaka ibili dira jaietako antolatzaileak, eta oraingoan aurrera egin dute. Plazatik hasi eta Santa Katalinako ermitaraino kronoigoera egingo dute, bizikleta gainean herritarrik onena zein den erabakitzeke. Parte hartu gura dutenek egunean bertan eman beharko dute izena, eta bizikleta antolakuntzaren esku egongo da.

Bestalde, dantzarako plaza izaten da Garaikoa jaietan. Hilaren 30ean bertan, esaterako, Luhartzen erromeriagaz gozatu ahalko dute. Drindots eta Obaneuke erromeria taldeez gainera, DJ Bull, DJ Jo Ta Txo eta Storm rock taldea ere igoko dira oholtzara.

HERRIKO JATETXEA
 ...
 San Migel plaza - GARAI
 Tel.: 946 812 580

Garaiko Landetxea
 San Migel, 10 GARAI
 944 656 003 / 607 842 190
www.garaikolandetxea.com

AbOIZ
 Merkatuko sukaldaritza sasoiko produktuekin
 Astelehen eta astearteetan itxita,
 atsedeen-egunak
 Erreserbetako tel. 946228240
info@restauranteaboiz.com
 San Migel auzoa, 2 GARAI · www.restauranteaboiz.com



Durangoko bonbardaketan garaitar bi hil ziren.

Azkonizaga
Edari banaketa
 GARAGARDOAK · ARDOAK · LIKOREAK
 ESNEA · URA · FRESKAGARRIAK
 Lejarza, 1 48213 Izurtza (Bizkaia) Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 58
azkonizaga@azkonizaga.com

Mañariko jaiak 2018

Abuztuak 14, martitzena

10:00-13:00 Umeen jolasak:

- 3 puzgarri
- Egurrezko jolasak
- Txiki rally-a

13:00 Txupinazoa, kanpai hotsa eta Pitxitxiren igoera**14:30 Herri bazkaria**

Ostean: Zirkua, Igel Txapelketa eta Mus txapelketa

23:30 Kontzertuak:**Esne Beltza****Los Zopilotes Txirrius**

Abuztuak 15, eguaztena (Andra Mari eguna)

10:00 Kalejira txistulariekin**11:00** Meza Kirikiño abesbatzarekin, ostean dantzariak**13:00 Pilota partiduak :**

Herriko gaztetxoaren partidua
Xala-Jaio // Titin-Beroiz

17:00 17:00 Karabina Jaurtiketa (Ateneo Cinegetico Mugarrak antolatuta).**18:30 Dantza alardea****20:00 Txistorrada****21:30** Lekittoko deabruak antzerki taldearen**"Anabasa" ikuskizuna**

Abuztuak 16, eguna (San Roke eguna)

Mozorro eguna. Gaia: WESTERN**11:00** Meza, ostean dantzariak**12:00** Paella txapelketa**14:30** Paellak aurkeztu eta sari banaketa.**18:00** Briska txapelketa**18:30** SAKATU elektrotzaranga**20:00** Herriko argazki erraldoia**22:00** Pitxitxiren agurraOndo pasatu
Andra Mari jaietan!MAÑARIKO
UDALA**EZ EZETZ DA!**
JAIK ERRESPECTUZ GOZATU!

"Prozesu oso aberasgarria izan zen adinekoei entzutea, eta asko ikasi genuen"

Ahozko ondarea jasotzen lanean ibilitako mañariar bik botako dute jaietako txupinazoa



Igone Ikobaltzeta eta Maria Luisa Gonzalez de Audikana mañariarrek botatuko dute txupinazoa, abuztuaren 14 eguerdian.

TXUPINAZOA • J.D.

Mañariko ahazko ondarea eta herri hizkerak jasotzen egindako lanagatik, Igone Ikobaltzeta Agirrek eta Maria Luisa Gonzalez de Audikana Loinazek botako dute aurtengo jaietako txupinazoa. Ahotsak proiektuaren barruan, herriko hamar bat adineko-gaz batu eta euren testigantzak jaso zituzten. Gaur egun, www.ahotsak.eus webgunean entzun daitezke elkarrizketa horiek, eta Euskal Herriko ondare komuneko parte dira.

Orain zortzi-bederatzi urte egin zituzten elkarrizketak. "Urte batzuk joan direnez, ustekabeen hartu dugu txupinazoa botatzearen kontua. Sorpresa hartu dugu, bai, eta poz handia ere bai", adierazi du Ikobaltzeta mañariarrek.

Inork agindu barik, euren kabuz hasi ziren herriko hainbat adineko-gaz batzen. "Gaztea zarenean, sarritan ez diozu kasurik egiten nagusiek esaten dutenari. Baina edadeagaz konturatzen zara oso aberatsa dela transmititzeko dutena. Bertsoak eta guk aurretik entzun bako doinuak dakizkitez, eta gaur egun entzuten ez diren berbak erabiltzen dituzte. Eta, bizimoduari dagokionez, hainbeste aldatu da azken 50 urteetan! Hori guztia jasotzea kuriosoa eta interesgarria iruditzen zitzaigun", azaldu du Ikobaltzetak. Maria Luisa Gonzalez de Audikanaren esanetan, "adinekoei entzutea prozesu oso aberasgarria" izan zen bientzat. "Asko ikasi genuen", gaineratu du.


Elkarrizketatutako batzuek gerra zibila ezagutu zuten eta horren gaineko istorioak kontatu zituzten. "Gerrako kontuak ateratzea kosta egiten zaie. Hain bizipen txarrak izan zituzten, antza! Hitz eginarazi beharra izan genuen sarritan. Hala ere, inor entzuteko interesagaz sumatzen badute, eurak kontatzeko gogoz egoten dira normalean", dio Gonzalez de Audikanak.

Gerra zibileko kontuetan sakondu zutenetan, kuriositate bat baino gehiago azaleratu zen. "Esterako, guk lagun moduan ezagutu izan ditugun pertsona bi bando desberdinetan egon ziren gerra zibilean. Beste behin, adineko batek modu batera kontatzen zuen pasadizo bat eta beste batek beste modu batera kontatzen zuen pasadizo bera", gogoratu du Ikobaltzetak.

"Inork entzuteko interesa duela sumatzen badute, kontatzeko gogoz egoten dira eurak", azaldu du Gonzalez de Audikanak

 **HARATEGIA - URDAITEGIA**
BIZKARRA
BASERRIKO OKELA
TXORIZOAK ETA ODOLOSTEAK
Tel.: 946 816 945 • Mug.: 615 781 247 • 48212 MAÑARIA (Bizkaia)


HERRI-TABER
EGUNEKO MENUA - PLATER KONBINATUAK - KAZUELATXOAK
OGITARTEKOAK - OTORDUAK ENKARGUZ
Herriko plaza • Tel.: 946 200 278 • MAÑARIA

 **GARATE**
Mañondo Baserria, 10
Tel.: 946 815 600
48213 Izurtza

 **Maderas**
Zugazagoitia
y Agirre
S.L.
Aldegoiena Auzoa, 2-A • MAÑARIA
Tel/Faxa: 94 681 87 98 • zuagi@hotmail.com

 **ERREKONDO**
Jaietxea

Andra Mari kalea, 1 • Mañaria
Tel. 600 096 591

JAVIER BIZKARRA
GARRAIOAK

Karga erabilgarria | Andra Mari, 19-ID | Tel.: 659 178 332
18.000 kg | Mañaria (Bizkaia)

 **Gaztelu**
ARROZTEGIA
Elondo eta gaztainondo egurrezko lehioak
(PVC eta aluminioa), guk eginikoak
AROTZERIA ORO HAR:
ATE BLINDATUAK | TARIMAK
BARRUALDEAK | ZOKALOAK
Aldabarrena auzoa • MAÑARIA • carpinteriagaztelu@hotmail.com
Tel.: 656 787 524 • Faxa: 946 200 358

Mallabiko Andra Mari jaiak 2018

Abuztuak 14, martitzena

11:30-13:00 Mallabiko Trikitilariak**12:00 Umeen txupinazoa** botako du Alkate txikiak

Ondoren Gazte Alai dantza taldekoek aureskua egingo diote

12:30-14:30 / 16:00-18:00 Umeentzako haur parkea: puzgarriak, junping-a... herriko frontoian**18:00 Bits festa** parkean**18:00-21:00 Kale animazioa** Rockalean txarangarekin**19:00 Txupinazoa,** Jasokunde abesbatzaren eskutik**19:30-21:00 Txokolatada** plazan eta ondoren IV. Adarra jotzeaSariak: 1. saria 40€-ko erosketa balea
2. saria 20€-ko erosketa balea**21:30 Pilota partiduak** Mallabia I Kirol Etxean

Bakaikoa - Erasun // Laso - Iturriaga

Urrutikoetxea - Aretxabaleta // Elezkano II - Larunbe

PILOTA PARTIDURAKO SARRERAK

Sarrerak abuztuaren 6tik 10era salgai udaletxean mallabitarrentzat

Partidu egunean sarrerek prezio bakarra izango dute, 25€

23:00 Erromeria Gora Herria taldearekin, plazan

Abuztuak 15, eguaztena

11:00 Meza Jasokunde parrokiari

Ondoren plazan (euria bada herriko frontoian)

Bertsolariak

Omenaldia 90 urtetik gorako mallabitarrei (Mallabiko Hirugarren Adineko elkarteak) Mallabiko dantzariak

17:00 Tute txapelketa Kontzejuzarrean

Sariak: 1. saria 120€ eta garaikurra

2. saria 100€

3. saria 80€

4. saria 60€

Izen-ematea 10€ bikoteko

17:30 Mallabiko XXVIII. HARRI-JASOTZE SARIA

Harri Txikia Mallabia I Kirol Etxean

PARTE-HARTZAILEAK:

JOSETXO URRUTIA	Leitza
XABAT OLAIZOLA	Zarautz
IMANOL ALBIZU (GOIKOETXE)	Elgoibar
ARITZ ETXEBERRIA (URETA)	Ermua
ION PETER SCOUT	Algorta
JON GISASOLA (Zelai V)	Mallabia
JULIO JIMENEZ	Avila

SARIAK

1. 900€ GARAİKURRA eta TXAPELA

2. 750€ ETA GARAİKURRA

3. 600€ ETA GARAİKURRA

4. 500€

Gainerako parte hartzaileentzako dieta 300€

Dagoen marka hausten duenari 200€

19:00 Patas arriba kale antzerkia parkean**22:30** Kontzertua Kalakan taldearekin parkean

Abuztuak 16, eguena

11:00-14:00 PAELLA eta MARMITAKO lehiaketa**PATATA-TORTILLA** lehiaketa 16 urtetik beherakoentzat izango da

Izen-ematea 11:30ean

SARIAK:

MARMITAKOAK:

1. saria 110€

2. saria 55€

PAELLA:

1. saria 110€

2. saria 55€

PATATA-TORTILLA:

1. saria 50€-ko erosketa balea

2. saria 30€-ko erosketa balea

Mallabiko trikitilariak animatuko dute giroa

12:00 Meza, Jasokunde parrokiari**14:00 Paella, marmitako eta patata-tortilla** lehiaketako sariak banatzea**14:15 Jubilatuen bazkaria** Kontzejuzarrean**16:00** Bilbainadak Iñaki Basabe kantariarekin jubilatuentzat Kontzejuzarrean**17:30 Koadrilen arteko jolasak****20:00** Mallabitar guztientzat txerri errea dastatzea (2 pintxo, euro 1) eta sagardoa doan**20:30 Erromeria Luhartz** taldearekin plazan

Ondo pasatu
Andra Mari
jaietan!



MALLABIKO UDALA

90 urtetik gorako mallabitarrek omenduko dituzte aurtengo Andra Mari jaietan

Urtero Andra Mari jaietan egiten dituzten idi probak aurten azaroan egingo dituztela jakitera eman dute



Abuztuaren 14an hasiko dituzte aurtengo Andra Mari jaiak.

JAIK • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abuztuaren 14an alkate txikiak pregoia irakurri eta Jasokunde abesbatzakoek txupinazoa jaurtita hasiko dituzte aurtengo Andra Mari jaiak. Abuztuan ez da jai-girorik faltako Mallabian, eta gustu guztietarako ekintzak antolatu dituzte.

Urte batzuetan galduta egon den ohitura bat berreskuratuko dute aurtengo jaietan. Mallabiko jubilatuek antolatuta, 90 urtetik gorako nagusiei omenaldia egingo diete. Omenaldia abuztuaren 15ean izango da, Andra Mari egunean.

Bestalde, urtero lez, San Roke egunean herriko gazte eta nagusiak batzen dituzten paella eta marmitako txapelketak egingo dituzte. Horrez gain, iaz lehen aldiz egin zuten tortilla txapelketa ere egingo dute. Txapelketa hau 16 urtetik beherako gazteentzat izango da. Arratsaldean, kuadrillen arteko jolasak egongo dira eta, ostean, txerri errearen pintxoak banatuko dituzte. Luhartz taldearen erromeriagaz amaituko dute eguna.

Urrutikoetxea, jaietako pilota jaialdian

Abuztuaren 14an, jaiak hasten diren egunean hain zuzen, urteroko pilota partiduak jokatuko dituzte Mallabian. Partidu nagusian, Urrutikoetxeak eta Aretxabaletak Elezkano II eta Larunbe izango dituzte aurkari. Partidu horren aurretik, Bakaikok eta Erasunek Lasogaz eta Iturriagaz neurtuko dituzte indarrak.

Idi probak, azaroan

Bestalde, orain arte jaietan egiten zituzten idi probak azarora atzeratuko dituzte. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, aurten atzeratzea erabaki dute, eta idi probetan parte hartu gura dutenek azaroaren 4an eman beharko dute izena. Probak azaroaren 9an, 10ean, 11n eta 12an izango dira.

Abuztuaren 16an mallabitarrek paella eta marmitako txapelketak egingo dituzte; baita tortilla txapelketa ere



Industrias FOCS, S.L.
TROKEL PROGRESIBOEN DISEINUA ETA FABRIKAZIOA
TRESNERIAREN FABRIKAZIOA
HARI BIDEZKO PIEZAK ETA DOITASUN HANDIKO BARNERATZEA
Goitondo poligonoa - Goikoa, z/g - 48269 MALLABIA - Tel.: 943 171 744 - E-mail: focs@focs.es



www.focs.es



hierros arrate, s.a.
Goitondo Industrialdea, MALLABIA
Ermuatik Markinarako bidean | 127 PK - 48260 Ermua |
Tel.: 943 170 612 / 943 170 616 | www.hierrosarrate.es




MAQUINARIA Y MULTIHUSILLOS, S.L.
Maymu
BURU ANITZEKO TORNUETARAKO
ORDEZKO PIEZEN ETA PIEZA OSAGARRIEN
BERRERAIKITZEA, KONPONKETA,
MANTENUA ETA SALMENTA
Pol. Ind Goitondo Behekoa -
naves 3 / 4 MALLABIA-BIZKAIA
Tel.: 94 657 00 94 - maymu@maymusl.com
www.maymusl.com



**METALEN BERRESKURAPENA,
BIRZIKLAPENA
ETA KUDEAKETA**
Tel.: 943 172 810
676 27 15 07

**HERRIKO TABERNA
MALLABIA**



Askalea, 3



**Ganadu garraioa
Juan Luis Irazola**
Tel.: 609 794 504
943 170 651
48269 MALLABIA

**Excavaciones
BOLIÑA
Mallabia - Bizkaia**

**•629 340 410•
•618 954 280•**
excavacionesbolina@hotmail.es



GOIMEK
GOIMEK ere mallabiarrekin
*Ondo pasa
Andra Mari jaietan!*



DANOBATGROUP www.goimek.com

Jasokundeko kideek jaurtiko dute txupinazoa udaletxeko balkoitik, abesbatzaren 25. urtemugan

Mende laurdeneko ibilbidean abesbatzaren sortzaileek eta kideek egindako lana aitortu gura izan dute



Mallabiko Jasokunde abesbatzako kideak.

EGITARAUA • JONE GUENETXEA

Garzteen artean abestea sustatzeko asmoz, Mari Carmen Solozabalek eta Arrate Arrietak Jasokunde abesbatza sortu zuten. Egindako beharrari esker, hogeita hamar lagunek izena ematea lortu zuten. Harrezkero, 25 urte igaro dira. Ibilbide honetan egindako lana aitortzeko asmoz, Jasokundek Mallabiko jaietako txupinazoa jaurtiko du. Iratxe Uribelarrea abesbatzako zuzendariak aitortu duenez, "pozik" hartu dute jaiari hasiera emateko ardura. Oraindik pregoia prestatu barik duten arren, musika presente izango da jaien hasieran.

Urteurren berezia

Maiatzean Jasokunde abesbatzak ekitaldi sorta prestatu zuen 25. urteurrena ospatzeko. Argazki erakusketa egin zuten Kontzejuzarrean, ibilbidearen nondik norakoak biltzen zituen 200 bat argazkigaz; besteak beste, ikus-entzunezkoak, hasierako jantziak eta kontzertuak iragartzeko kartelak izan ziren ikusgai. 25 urteotan abesbatzak bost zuzendari eduki ditu Jasokundek: Maritxu Roteta, Agurtzane Mentxaka, Uxue Alonso, Esther Hernandez eta Iratxe Uribelarrea. Momentu honetan, 11 abeslari dabilzan arren, azken mende laurdenean 70 lagun inguru igaro dira abesbatzatik. Ospakizun jaia ere egin zuten maiatzean. Bertaratu zirenek Txoriak txori abestia kantatu zuten, besteak beste.

'Oh Happy Day'-n, finalista

Jasokundeko abesbatzako kideek ETB1eko *Oh Happy Day* programan parte hartu zuten. Iratxe Uribelarrea zuzendariak dioenez, "lau hilabeteetan lan handia egin behar izan genuen programan parte hartzeko, eta oso gogorra izan zen". Lan horrek bere fruituak eman zituen, talde mallabitarra finalera heldu zen eta.

URANGA Goitondo Ind. pab. 1 - MALLABIA
Tel. 943 17 97 17
Whatsapp 685 75 18 48
www.urangaautoak.com

IBILGAILUEN KONPONKETA ETA MANTENIMENDUA

ondo pasau jaixetan!

RHEYDE lanabesak s.l.

- ✓ PERFILATUAK
- ✓ MOLDAKETAK
- ✓ BERRESKURATZEAK

Goitondo ind., 3. pab. - 48269 MALLABIA
184 PK - 48260 ERMUA
Tel.: 943 170 898 - rheyde@rheyde.com

LARZEP HYDRAULIC

Urtiaga etorbidea, 6
MALLABIA
info@larzep.com
Tel.: 943 17 12 00

Excavaciones Jon
Lur mugimenduak

• Jon Garitagoitia Gallastegui •

MOTA GUZTIETAKO INDUSKETAK HONDAKINDEGIA

Pagotxueta, z/g • GERA - 48269 MALLABIA
Tel.: 943 17 26 54 • Mug.: 629 446 099

RECICLAJES METALÚRGICOS
JESÚS M.ª CORDÓN, S.L.

Goitondo-Goikoa poligonoa. z/g - P3A - 6/8 pabellona
48269 MALLABIA (Bizkaia)
Apdo. 181 • 48260 ERMUA
T./F.: 943 174 581 - M. 619 569 595

BETEARTE
Hondakin ez arriskutsuen zabortegia

BI-3342 errep. Areitio garaia MALLABIA pk. 38
Tel.: 943 170 307 - Faxes: 943 176 160
info@betearte.com www.betearte.com



**Helene Sanchez Zelaia
eta Iker Villanueva
Sanchez**
Berbaz.
Durango | 1997/1995

“Sortzen dena intimitatean gordetzea da joera; publikatzen laguntzea gura dugu guk”

Sorginolako Ateneoko kideek Berbaz aldizkaria kaleratu dute gaztetxearen hirugarren urteurrena ospatzeko asmoagaz

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Sorginolako Ateneotik literaturagaz eta sorkuntzagaz loturiko hamaika ekimen antolatu dituzte urteotan. Gaztetxearen hirugarren urteurrenean, 'Berbaz' sorkuntza aldizkaria aurkeztu zuten. Gazte durangarren hainbat sorkuntza publikatu dituzte aldizkarian. Proiektua dinamizatu duten taldeko kideetako bi dira Helene Sanchez eta Iker Villanueva.

Nondik dator 'Berbaz'?

Iker Villanueva: Sorginola okupatu eta gero, zenbait proiektu martxan jartzeaz berba egin zen. Horrela sortu zen Ateneoa. Hainbat ekimen antolatzen hasi ginen. Irakurraldiak eta literatur tertuliak, adibidez. Taldea egonkortu ahala, ekimen handiago bat egitea pentsatu genuen; sorkuntza aldizkari bat sortzea ideia ona iruditu zitzaigun.

Helene Sanchez: Durangon egon izan dira horrelako aurrekariak, eta horri jarraipena eman gura izan diogu. Sei hilabetez proiektu honetan buru-belarri egon gara.

Aldizkari lanetako batzuk 24 Ordu Paperean lehiaketan jaso zenituzten.

I.V.: Bai, hamar lagunek bidali zizkiguten beraien lanak, eta oso pozik geratu ginen. Lan onduagoak ere badaude. Idaztea gustuko

duren gazteengana jo genuen, eta idaztera gonbidatu genituen. Beste batzuk guk ezer esan barik etorri dira gugana.

H.S.: Guretzat sorpresa bat izan zen, formatua ere ezberdina zelako. Lehiaketaren formatuari esker, hasiera batean heltzen ez ginen jende batengana heldu ahal izan gara. Ateneoan lau lagun gaude orain, eta geu arduratu gara guztiaz: diseinua, maketazioa,

dik interesatzen zaion ikusteko balio izan digu aldizkaria egiteak, uneko argazki bat egiteko, eta horrek motibatze eta aurrera egiteko balio izan digu.

I.V.: Tailerrak egin izan ditugunean, ikusi dugu Durangon badaudela idaztea gustuko duten gazteak. Aldi berean, idazten edo sortzen dena intimitatean uzteko

“

Edozein ekarpen egiteko, 'sorginolakoateneoa@gmail.com' helbidera idatzi daiteke”

■

“

Ale honetan hogeita hamar bat lagunek parte hartu dugu; aldizkariaren aniztasunaren isla da”

■

editoriala... Ekarpina egin duten lagunak kontuan hartuta, hogeita hamar bat lagunek parte hartu dugu lehenbiziko ale honetan. Aldizkariaren aniztasuna islatzen du horrek.

Gabezia sumatzen zenuten gazteen sorkuntzaren alorrean?

H.S.: Esan bezala, bazeuden aurrekari batzuk Durangon. Txaman aldizkaria, adibidez. Jendea orain-



Ateneoko kideak kalean jarri dira Berbaz aldizkariaren aleak saltzen.

Saltxitxak saltzen amaitu duten antzerkilari biren istorioa, artearen debaluazioaz hausnartzeko

Trapu Zaharra konpainiak 'Sefini' izeneko obra ekarriko du Durangora, Santi Ugalde eta Mila Espiga antzezle direla



Ugalde eta Espiga, antzezlanaren eszenetako batean.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Trapu Zaharra konpainia mitikoak 35 urte baino gehiago daramatza antzerkigintzan, eta bere azkenetako lan bat dakar orain Durangora, San Agustin kulturgunek eta

Plateruenak lehenengoz antolatutako Uda Giro jaialdiaren baitan. *Sefini* izeneko obran, porrot egin duten antzerkilari biren azalean sartuko dira Santi Ugalde eta Mila Espiga. Bihar izango da emanaldia,

20:00etan, Aurora Abasolo parkean (Musika Eskola ondoan).

70eko edo 80ko hamarkadan sortutako antzerki konpainia baten istorioa kontatzen dute protagonistek, eta zelan doazen aldatzen,

amaierara arte. Konpainia zarratu eta saltxitxak saltzen hastea erabakitzen dute, antzerkian ibili ziren zirkuitu berean.

Ugaldek dio artearen debaluazioa aztertzea gura zutela *Sefini*guz.

"Frakasatu biren istorioa da, gure ofizioaren erretratu bat. Baina krisi ekonomikoagaz, programazio murriketaz eta kulturaren debaluazioagaz ere badu zerikusia", azaldu du aktoreak.

Kaleko antzerkiaren xarma

Saltxitxena "puntu ikoniko edo erradikal bat" dela dio Ugaldek, kaleko antzerkirako osagai bat. Euren atrezzo guztia saldu, eta saltxitxak saltzen hasiko dira han eta hemen. Ikusleak istorioan harrapatzen saiatuko dira ideia zoro horregaz.

Ugalde: "Kontatzen ari zarenaren egiazkotasuna da kaleko antzerkiaren gauzarik onena"

Antzerkian bezala, telebistan hainbat saio eta telesailetan ikusi ahal izan dugu Ugalde; esaterako, *Vaya Semanita* lehen, eta *Alli Abajo* seriean orain. Baina, urte asko ari da kale antzerkian lanean, eta arlo horretaz galdetuta, xarma berezia duela dio. "Kontatzen ari zarenaren egiazkotasuna da kaleko antzerkiaren gauzarik onena. Denbora errealean eta ikusleagaz aurre egin ahal izatea, laugarren hormarik barik", adierazi du.

Panamako dantzak eta erritmoak ikusteko aukera Margarita Maturana Amaren Egunean

Ritmos y Raíces Panameñas ballet talde beteranoak ikuskizuna eskainiko du astelehenean

DANTZAK • A.M.

Margarita Maturana Amaren Eguna ospatuko dute datorren astelehenean, hilak 23, Berrizen. San Lorentzoko dantzari taldeak harreara egingo dio Panamako Ritmos y Raíces Panameñas ballet taldeari. Ostean, Erdialdeko Amerikako taldeak bertako dantzak eta ohiturak nahasten dituen ikuskizuna eskainiko du.

Panamako Ritmos y Raíces Panameñas ballet taldea 1985ean sortu zen, eta, ordutik, mundu

Hiru hamarkada baino gehiagoko ibilbidean Belgikan, Txilen eta Alemanian egon dira

Barikuan zine emanaldiak egingo dira; 'Katu bat Parisen' eta 'Anacleto Agente Secreto'

osoan Panamako folklorea zabalitzen egon dira: Belgikan, Txilen, Kolonian eta Alemanian egon dira, besteak beste.

Udako egitaraua

Berrizko Udalak hainbat ekitaldi antolatu ditu udarako. Barikuan zine emanaldia ere egongo da. 18:30ean *Katu Bat Parisen* eta *Anacleto Agente Secreto* pelikulak eskainiko dituzte. Aurretik, Trotamundos konpainiaren *Historias de un Baul* antzezlan plazaratuko dute.



Panamatik dator dantza taldea.

San Agustin Kultur Gunea
Plateruena Kafe Antzokia

uda giro
2018

Durango

JAZZKERUENA - ZINEA - ANTZERKIA - DANTZA
MUSICA - CINE - TEATRO - DANZA

Aurora Abasolo Parkea*

TRAPU ZAHARRA Sefini
Uztailak 21 - 20:00etan

Antzerkia

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

SAN AGUSTIN Kultur Gunea
Sanagustinalde, 12
DURANGO
Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango.eus

PLATERUENA

PLATERUENA Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A
DURANGO
Tel.: 946 030 300
jatetxea@plateruena.net

* Euria eginez gero San Agustin Kultur gunean

#udagiro2018

Krisi garaia iraultzeko soinu banda dakar The Souljazz Orchestra taldeak

Krisi garaietan ere ikusleak dantzan jartzeko moduko zuzeneko du talde kanadiarrak



The Souljazz Orchestra kanadiarrak.

MUSIKA • A.M.

Berba aldarrikatzaileekin, sintetizadore zaharrekin, haize sekzio indartsuagaz eta erritmo kaxekin sorturiko boogie, elektro eta disko lo-fi doinuen bidez, The Souljazz Orkestrak dantzan jarriko du Elorrioko plaza zapatuan. Europan barrena bira luzea egiten ari da taldea, *Under Burning Skies* azkeneko lana zuzenean aurkezten; atzo Zarautzen egon ziren.

Europan zehar bira luzea egiten ari da talde kanadiarra; atzo Zarautzen egon ziren

Barikuan 'The Primitives' komedia musikala ikusteko aukera egongo da Elorrioko plazan

Musikairek bestelako eskaintzak ere baditu astebururako. Barikuan, The Primitives-ek komedia musikala eskainiko du; eta, domekan, mikroantzerkiak ikusteko aukera egongo da plazan. La Farandularen *Tribulaciones de un gigolo*, El Mono Habitadoreen *Benditas* eta Anondinoren *El Gato de Schrodinger* obrak eskainiko dituzte.

Geure Durangaldea



Garazi Mugarza Markina Erizaina

Bizimina

Hilabete luzeak daramatza zu petralduta eta ahulegi, eta lanari egozten diozu; buruko min itzelak daukazu antza eguraldi aldaketa bortitz hauengatik; minbera dituzu belaunak eta hotzengatik da, baina hazten ari zarela diozu txantxetan. Eta etengabe kezkatzen zara. Lagun on batek esan dizu gorputza hasi zaizula hizketan buruari jaramonik egin ez diozulako, edo ez behintzat behar zenean. Ez omen zara zure osasun mentalaz batere arduratzen ari, eta gatazkak somatizatzen ari zarela dio, ondoez mentalen espresio fisiko bat egiten: sintoma fisikoak agertu dituzula, ziur asko kausa organiko edo mekanismo fisiologiko frogagarriak ez dutenak eta faktore psikologiko estresagarriekin erlazionatuta egon litezkeenak. Eta ea zelan zauden. Hor hasi (ohi) da dena.

Ahuldu zaituzten minak, nekeak eta ubelak ulertzen ahalegintzeko eskatu dizu, ohar zaitezzen zenbat kimiko hartzen ditugun oraindik gure oinazeei erantzuten ikasi ez dugulako. Agian ez dituzu ulertzen, baina ausartu zara gaitz horiek guztiak gorputzaren, gogoaren edo emozioen zakuetan sartzen, non sortuak izan litezkeen asmatzen. Zenbat paracetamol hartu dituzu sukar handi baten antzeko kolera eta kezkek desesperatuki baretu nahian? Zenbat alditan eseri zara mediku baten kontsultan farmako bat errezeta diezazun? Pentsa zer gorputzu ote duzun zure eguneroko ondoezetatik, batzuetan zauri bat bezala zabaltzen direnak gordeta ditugun minak direlako, eta ez besterik.

Crowdfunding bidez finantzaturiko diskoa kaleratuko du Etxek

Irailean kaleratuko du diskoa artista berriztarrak; uztailearen 31ra arte dago crowdfundingean parte hartzeko aukera

MUSIKA • A.M.

Formatu akustikoa utzi eta pop rock doinuen aldeko apustua egin du berriro Etxe berriztarrak. "Aldaketa garaia da, proiektua eraldatu eta gauzak beste era batera egiteko momentua da", azaldu du musikariak. Bilboko TAOM estudioetan ari da lanean, Jagoba Ormaetxea ekoizleagaz batera. Berriztarrak

Arma, Tiro, Pum! abestia aurreratu du, eta bertan nabaria da pop rock doinuetara egindako hurbilketa. Hitzak euskal kantu ezagunen parteekin idatzi ditu.

Lan berria Plateruenean aurkeztuko du, urriaren 6an, The Van taldeagaz batera. Verkami plataformaren bidez finantzatuko du Etxek disko berria.



Formatu akustikoa albo batera utzi du Etxe berriztarrak.



Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta
Tel.: 946 205 187 - Faxe: 946 205 194



Tremenda Jauria

KONTZERTUA
OTXANDIO :: Uztaileak 21

**Cumbia, reggaeton, hip-hop...
Dantzarako musika santamañetan**

Bihar Otxandioko plazan ez da dantzarako aukerarik faltako. Tremenda Jauria talde madrildarrak cumbia eta reggaeton soinuak ekarriko ditu. Eurekin batera, Glaukomak joko du jaialdi berean. Eta, jaia amaitzeko, Zirkinik Bez talde zornotzarraren eskutik erromeria egongo da.

Uztailearen 20an

ZALDIBAR jaiak
'Goierri auzkoko Santa Marina jaiak'. Sardina jana, 20:15ean; **kantu eta dantza jaialdia Koldo eta Josebaren eskutik**, 21:00etan; **bolo-jokoa**, 23:00etan.

ZORNOTZA jaiak
Kuadrillen kalejira, 13:00etan, kalbario plazatik; **bertso bazkaria Aitor Bizkarragaz eta Txaber Altubegaz**, 15:00etan, Ixerbekoan; **aldi bereko 50 xake partida**, 17:00etan, herriko plazan; **Orkestra elektrotxaranga**, 18:00etan Luis Urrangoetxea kalean; **txistularien XIX. kontzertua Kutxi Romero gonbidatuagaz**, 20:30an Zelaieta parkean; **danborrada**, 22:00etan; **Inunen kontzertua**, 23:30ean, Zubiondon; **Zea Mays eta DJ Adriana Gaultierren kontzertua**, 23:30ean, Ixerbekoan.

OTXANDIO jaiak
'Santamaña jaiak'. Umeentzako puzgarriak, 11:30ean, herriko igerilekuan; **kuadrillen arteko playbacka**, 22:30ean.

Uztailearen 21ean

ZALDIBAR jaiak
'Goierri auzkoko Santa Marina jaiak'. Bakailao eta paella txapelketa, 11:30etan; **trikitilariak**, 12:00etan; **bakailao eta paellen sari banaketa**, 15:30ean, probalekuan; **mus eta briska txapelketak**, 16:30ean; **antzerkia umeentzat, eta ostean txokolatada**, 17:00etan; **erromeria Luhartz taldeagaz**, 22:30ean, **bolo txapelketa**, 23:00etan.

OTXANDIO jaiak
'Santamaña jaiak'. herriko bandaren **kalejira**, 12:00etan; **meza**, 12:30ean, San Martinen; **dultzaineroekin kalejira**, 12:30ean; **paella txapelketa, bolo txapelketa eta zuzeneko musika**, 14:00ean, San Martinen; **Sakatu elektrotxaranga**, 19:30ean; **Glaukoma, Tremenda Jauria eta Zirkinik Bez!**, 22:30ean.

ZORNOTZA jaiak
Usakume tiroketa, 9:00etan, Boroan, **basket 3x3**, 10:00etan, Zubiondo parkean; **marmitako lehiaketa**, 10:30ean, Zubiondo parkean; **umeentzako bolo txapelketa**, 11:00etan, Gure Kirolak bolatokian; **Urrutia anaiak trikitilariak, Kittu eta Gaztediko gaiteroak**, 12:30an; **XXXVII. xake txapelketa**, 17:00etan, Urbano Larruzean, IV; **Master Kaiola txapelketa**, 18:00etan, frontoian; **Irulitxa fanfarrea**, 20:00etan Andra Mari plazan; **London Orkestra**, 23:00etan Zubiondon, **Hesian eta Batek daki taldeen kontzertua**, 23:00etan Ixerbekoan.

Uztailearen 22an

ZALDIBAR jaiak
'Goierri auzkoko Santa Marina jaiak'. Meza, 12:00etan; **omenaldia auzoko nagusiei dantzariekin**, 13:00etan; **bolo-jokoa gazteentzat**, 17:00etan; **asto probak**, 18:00etan; **argazki proiektzioa**, 21:30ean; **jaiei amaiera emateko traka**, 22:00etan.

ZORNOTZA jaiak
Baserritarren azoka, goizean, Zezilia Gallartzagaitian; **aitita eta amamen jaia**, egun osoan zehar; **VII. jai lasterketa**, 11:00etan, Zubiondon; **herriarteko esku pilota txapelketa**, 11:00etan, frontoian; **ontzi modelismoaren erakustaldia**, 11:00etan, Jauregibarrian; **arku tiroketa erakustaldia**, 12:00etan, Jauregibarrian; **Kittu, Ainhoa eta Ander eta Gaztediko gaiteroak**, 12:00etan; **kuadrillen arteko herri kirolak**, 18:00etan, Zelaietan; **Kontzertua Irungo bandagaz**, 20:00etan herriko plazan; **su artifizialak**, 22:30ean, Jauregibarrian; **Ze Esatek! taldearen kontzertua**, 23:00etan, Zubiondon.

OTXANDIO jaiak
'Santamaña jaiak'. diana eta kalejira, 07:30ean; **sokamuturra**, 08:00etan; **omenaldia 36ko bonbardaketan hildakoei**, 13:00etan, Andikoa plazan; **Arabako 2. mailako aizkolari txapelketa**, 19:00etan; **nesken sokadantza**, 20:30ean; **'Agur Santa Marina' abestuz, jaiei agurra**, 00:30ean.

Uztailearen 25ean

ABADIÑO kalezinea
'Paddington 2' pelikularen emanaldia, 22:00etan, Muntsaratzen.



Tabira Banda eta P. Liquido

KONTZERTUA
DURANGO :: Uztaileak 22

Madalenetako kontzerturako emanaldi berezia prestatzen dabil Tabira Musika Banda. Uztailearen 22ko kontzertuan Queen talde mitikoaren abestiak eskainiko dituzte. Pablo Liquido abeslariagaz batera abestuko dute bandako kideek.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

HAVANA 537 Zornotzako jaietan

MUSIKA • Havana 537 talde kubatarrak emanaldia eskainiko du Zornotzako jaietan, Santanatu egunean, hilaren 27an. Zubiondo plazan izango da kontzertua, 22:30ean.

Musika egitarau luzea dute Zornotzako jaietan. Bihar Hesian taldearen txanda izango da, eta domekan Ze esatek! igo da oholtzara.



Uztaileko agenda



14

“SANTA MAÑAKO JAIK ARRIANDI”

Amezketako eskolan
14:00 Herri bazkaria. Ondoren, trikitilariak giroa alaituko dute.

18

“SANTA MAÑA EGUNA ARRIANDI”

Santa Mañako basilikan
11:30 Meza. Jarraian tortillak, gozokiak, karramarroak eta edariak banatuko dituzte.
Santa Mañako XLI. Tortilla Txapelketa.
Santa Mañako XXXIV. Igel Txapelketa.
Amezketako eskolan
18:00 Santa Mañako LI. Briska Txapelketa.
Amezketako inguruetan
19:00 Arno Ganadutegiak antolatuta, ume eta helduentzako jolasak.

Emoixu Odol Elkarte

Maspe 6
16:30-21:00 Odol emotea.

25

“SANTIXAU EGUNA OROZKETAN”

12:00 Meza. Jarraian luntxa.

IURRETA jaiak

‘Santixau Eguna’. Meza, ostean luntxa, 12:00etan, Orozkoketan.

Abuztuaren 5ean

ELORRIO jaiak

‘Argiñetako jaiak’.
Auzoko dantza zaharrak, 13:00etan; umeentzako parkea, 17:30ean; bertso-kantu afaria Miren Amuriza eta Jon Maia bertsolariekin eta Beñat Aiarza eta Ugaitz Catalan musikariekin, 20:30ean.

Abuztuaren 14an

ATXONDO jaiak

‘Andramariak Arrazolan’. Txopo sartzea, 20:30ean, ‘Ergela’ antzezlan, ostean, erromeria Luhartz taldeagaz, 22:00etan.

Abuztuaren 15ean

ATXONDO jaiak

‘Andramariak Arrazolan’. Meza, 12:00etan; herriko dantzarien dantzaldia, 13:00etan; pilota partiduak, 18:30ean; triki-bertso-pintxo-kantu gaba Uxue Alberdi, Sebastian Lizaso eta Jon Maiagaz, iluntzean.



Kontzertua eskainiko dute Ze Esatek! gipuzkoarrek Zornotzako jaietan.

Abuztuaren 16an

ATXONDO jaiak ‘San Rokeak Arrazolan’. Meza, 11:00etan; paella txapelketa, goizean zehar; bazkaria, 14:00etan; bolo-jokoa, 17:00etan; asto probak, 18:30ean; Arantza eta Pantxoren kontzertua, iluntzean.

Abuztuaren 17an

ATXONDO jaiak ‘San Rokeak Arrazolan’. ‘Burutik jota’ umeen jaia, 18:30ean; herri afaria, eta ostean erromeria Akerbeltz taldeagaz, 21:00etan.

Zine- ma

:: Berriz KALE ZINEA

• **Katu Bat Parisen**
barikua 20: 18:30
• **Anacleto Agente Secreto**
barikua 20: 21:30

:: Durango ZUGAZA

• **Mamma Mia. Una y Otra Vez**
barikua 20: 19:30/22:00
zapata 21: 17:00/19:30/22:30
domeka 22: 18:00/20:30
astelehena 23: 18:30/21:00
martitzena 24: 20:00
eguztana 25: 20:00

• **La Primera Purga. La Noche De Las Bestias**
barikua 20: 19:30/22:00
zapata 21: 17:00/19:30/22:30
domeka 22: 19:15/21:15
astelehena 23: 21:00
martitzena 24: 20:00
eguztana 25: 20:00

• **El Mejor Verano De Mi Vida**
barikua 20: 22:00
zapata 21: 19:30/22:30
domeka 22: 19:15/21:15
astelehena 23: 18:30/21:00
martitzena 24: 20:00
eguztana 25: 20:00
• **Hotel Transilvania 3**
barikua 20: 19:30
zapata 21: 17:00
domeka 22: 17:00
astelehena 23: 18:30

Mundu osoko musikaren topagunea

MUSIKAIRE | Uztaileko asteburuetan, musika eta antzerkiaren plaza izaten jarraituko du Elorriok. Diziplina askotariko ikuskizunak ikusteko aukera egongo da datozen asteburu bietan ere. Horrela, asteburu honetan, antzerkiak, musika eta komedia musikal bat ikusteko aukera egongo da. Uztaileko azkeneko asteburuan, ostera, musika izango da protagonista nagusia. Travelin´Brothersek emanaldi bizia eskainiko du. Tosta Bandako kideak hamaika txokotakoak dira, eta beraien jatorriko herrialdeetako musikak dakartzate. Elorrioren bizi den Eneko-ra musikaria eta bere taldea arduratuko dira Tola jauregian

Egitaraua

The Primitives, uztailearen 20an, 22:30ean, plazan.

The Souljazz Orchestra, uztailearen 21ean, 22:30ean, plazan.

Mikroantzerkia, uztailearen 22an, 19:30ean, plazan.

Travelin´Brothers, uztailearen 27an, 22:30ean, Tola jauregian.

Tosta Banda, uztailearen 28an, 22:30ean, Tola jauregian.

Eneko-ra, uztailearen 23an, 22:30ean, Tola jauregian.

“Logroñesen jokalaria oso onak daude; goian, igoerarako borrokan, egoteko proiektu bikaina dela uste dut”

Kulturalean, Athleticen bigarren taldean eta Gernikan aritu ostean, Logroñesen arituko da datorren denboraldian Lander Olaetxea abadiñarra



Lander Olaetxea
Ibaibarriaga
Logroñes taldeko
futbolaria

Abadiño | 1993

Azken denboraldian, Athleticeko taldekide ohien kontra jokatzeko aukera izan zenuen. Aurten ere, horien kontra arituko zara, eta baita Gernika eta Kulturalekoen kontra ere. Nolakoak izaten dira partidu horiek? Taldea hurbilekoa izanik, beti jokatzen duzu ezagunen kontra eta, egia esan, polita da lagun edo ezagunen kontra aritzea. Iaz, esaterako, Athleticen kontra neuk sartu nuen lehenengo gola, futbolarion artean ezaguna den jokalaria ohia- ren legea betez. Aurten lege hori betetzen bada, hiru gol ziurtatuta izango ditut (barrez).

Orain urte batzuk zure taldea izan zen Kulturala. Aurten, mailaz igotzea lortu du.

Izugarri poztu ninduen Kulturalaren igoerak. Tabiran harmailetatik ikusi nuen partidua, eta bertan ospatu nuen taldearen igoera. Gainera, pozarren nago aurten Tabirara itzuliko naizelako. Pena da Kulturalagaz ez itzultzea, baina hau bizitzako beste etapa bat da. Denbora batera, oraindik hemen aritzeko aukera izango dudalakoan nago.

Nola uste duzu arituko dela datorren urtean Kulturala?

Uste dut aurtengo taldeagaz jarraituko dutela, eta ikusi ditudan partiduetan ondo aritu dira. Ikusi egin beharko da nola egokitzen diren liga berrira, baina badituzte ahalmena eta ezaugarriak Bigarren B Mailari eusteko.

Txikitatik zabilta futbolean. Momenturen batean uste zenuen futboletik bizitzera iritsiko zinenik?

Egia esan, gaztetan ondo ibili nintzen, baina ez nuen pentsatzen nora heldu gura nuen. Niretzat, esaterako, Kulturalagaz Hirugarren Mailan aritzea izugarria zen. Baina, gero, aurrera egiten duzunean eta mailaz maila igotzen zozzen heinean, gauzak beste modu batera ikusten dituzu.

Etorkizunean, non ikusten duzu zure burua?

Urte batzuetan futbolean jarraitzeko asmoa dudan arren, etorkizunean ikasgela batean ikusten dut nire burua. Umeekin egotea gustatzen zait eta ikasi dudan horretatik bizi ahal izatea gura nuke.

FUTBOLA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Umetatik futboleko baloia bidelagun izan du Lander Olaetxeak. Azken urteotan, gainera, afizio zuena ogibide bihurtu du abadiñarrak. Aurki hasiko den denboraldi berrian Logroñes taldean arituko da futbolaria. Futboleaz aritzeaz gain, Haur Hezkuntza ikasi du, Lehen Hezkuntza ikasten dabil, eta umeekin lan egitea du amets Olaetxeak.

Denboraldi berrian Logroñesen arituko zara. Nolatan hartu duzu Gernika utzi eta Logroñora joateko erabakia? Logroñesekoa hiri baten proiektu garrantzitsu eta polita da. Gainera, herria bera ere polita da; beraz, hori guztia batuta hartu nuen erabakia. Zaila izan da "etxean", Gernikan, jokatzen egotetik kanpora joateko erabakia hartzea?

Lehen aldia da etxetik kanpo joango naizena, eta horrek, talde berri batean futboleaz aritzeaz gain, beste hainbat gauza ere badakartzat: Logroñon bizitzea, esate baterako.

Hala ere, ordu eta erdian etxean nago eta horrek asko lagundu du erabakia hartzerako orduan.

Dagoeneko izan duzu lehen hartu- emana taldekideekin.

Joan zen eguenean izan genuen lehen entrenamendua, eta taldeak itxura oso polita du.

Nola ikusten duzu taldea datorren denboraldira begira? Mailaz igotzeko aukerarik baduzuela uste duzu?

Logroñesen jokalaria oso onak daude; goian, igoerarako borrokan egoteko proiektu bikaina dela uste

“**Aurten pausotxo bat aurrera egin dut eta dagoeneko mailara egokitu naizela esan dezaket**”

dut. Printzipioz, taldea mailaz igotzeko moduan egongo delakoan nago, baina hainbat baldintza bete beharko dira horretarako. Gainera, denboraldiak luze jo dezake eta ikusi egin beharko da gauzak nola doazen.

Orain lau denboraldi hirugarren mailako talde batetik Athleticen bigarren taldera pasatu zinen, bigarren mailara. Jauzi handia izan zen?

Egia esanda, hirugarren mailatik bigarren mailarako jauzia nahiko handia izan zen. Baina, ez nuen partidu askorik jokatzeko aukerarik izan.

Hurrengo urtean, berriz, Athleticegaz bigarren B mailan aritu zinen, eta aurten ostera, Gernikagaz. Dagoeneko mailara egokitu zarela esan daiteke?

Bigarren mailatik bigarren B mailara pasatutakoan, erosoago sentitu nintzen eta gustura aritu nintzen. Aurten, berriz, pausotxo bat aurrera egin dut eta dagoeneko mailara egokitu naizela esan dezaket.

Gernikan zenbait postutan jokatu zenuen, hainbat rol hartuz. Logroñesen non arituko zaren badakizu?

Gernikan lekuz aldatzen ninduten, beharizanen arabera. Partiduak erdi puntako jokalaria moduan hasten nituen eta, partiduan zehar, jokalariren bat falta bazen, mugitu egiten ninduten. Logroñesen ere neure postua izango dut; printzipioz, erdian jokatuko dut. Baina beharizanik egonez gero, aldatu egingo naute. Hainbat postutan jokatu dezaket, eta horixe da nire bertuteetako bat.

“**Izugarri poztu ninduen Kulturalaren igoerak. Tabiran harmailetatik ikusi nuen taldearen igoerako partidua**”

Cañete eta Luengo erreferente dira Euskadiko arku-tiro probetan

Aire zabaleko Euskadiko txapelketan txapeldun eta hirugarren geratu dira Getxon



Lidia Cañete eta Elisabeth Luengo Euskadiko txapelketan lortutako dominekin.

ARKU-TIROA • JOSEBA DERTEANO

Arku-tiroan belaunaldi biren isla dira Lidia Cañete Jaio (Durango, 1969) eta Elisabeth Luengo Luque (Durango, 1992). Zaldibar Arku Taldeko Cañetek bere palmares oparoa handitu egin zuen joan zen asteburuan Getxon, Euskadiko arku-tiro txapelketa irabazita. Durangoko Arkulariak taldeko Luengok, berriz, hirugarren sailkatu eta podiumera igotzea lortu zuen aire zabaleko txapelketan eta senior mailan parte hartzen zuen lehenengo aldian.

Euskadiko txapela jantzita, aste-buru bat lehenago Espainiako txapelketak utzi zion arantza ateratzea

Luengo geziak jaurtitzeko teknika berriagaz aritu da aire zabaleko Euskadiko txapelketan

lortu zuen Cañetek. Santanderren jokaturako txapelketan, sailkapen fasean berak baino puntuazio eskasagoa lortutako aurkariak kanporatu zuen gero. "Kanporaketa horretan ez nuen egun ona izan. Hobeto egin nezakeen sentsazioa geratu zitzaidan eta Euskadiko txapelketak horixe erakutsi zidan. Esaterako, 30 puntu gehiago lortu nituen sailkapen proban". Euskadiko kanporake-

tetan Elisabeth Luengo herrikidea kanporatu zuen lehenengo eta Mirene Etxebarria finalean. Etxebarria ez zen nolana hiko aurkaria; orain-tsu arte Madrilgo Errendimendu Handiko Zentroan ibili da.

Teknika aldatzearen saria

Arku-tiroan teknika asko daude geziak jaurtitzeko. Barruko probetan 18 metrora egoten da itua, eta aire-zabalekoetan, 70 metrora. Distantziaz gainera, argia eta haizea dira gezia jaurtitzeko eragin dezaketen beste faktore batzuk. Ildo horretatik, Luengo gezia jaurtitzeko teknika aldatzen ari da. "Teknikaren hainbat pauso aldatu ditut. Hasi-eran kosta egiten da, baina entrenatzaileak eta biok onerako izango dela uste dugu", esan du. Euskadiko hirugarren postuak erakusten du aldaketa bere fruituak ematen ari dela, baina denborak aurrera egin eta bere teknika doitu ahala "hobekuntza gehiago" igarriko duela uste du. Aire zabalean zein barruko probetan, bietan teknika berri horregaz jarraitzeko asmoa du.

Cañeteren antzera, Espainiako txapelketan aritu zen Luengo. Bere lehenengo parte hartzean "oso urdur" zegoela onartu du, eta Euskadikoan baino puntuazio baxuagoa lortu zuen. Hala ere, estreinaldia izateko, gustura geratu zen.

Asteko kirolaria



ASIER AGUIRRE SANTOS

Durango, 1989

ATLETISMOA • Asier Aguirre (Bat Basque Team) Europako INAS Txapelketan lehiatzen ari da Parisen. 10.000 metroko proban, bere dis-

“Europako txapelketako 10.000 metroko proban bigarren eginda pisu handia kendu dut gainetik”

Lesio luze bat gainditu ostean, bere mailarik onenera itzultzen ari da Asier Aguirre

tantzian, zilarrezko domina irabazi du. Belauneko lesiotik erabat erre-kuperatuta dagoela dio.

Zelan joan zen lasterketa?

Lehenengo kilometro bietan lasterketa mantsoa izan zen, oso taktikoa. Bata bestea zaintzen ibili ginen. Nik gauza bat argi neukan: ez nintzela ni tiratzen jarriko. Badakit zer gertatzen zaidan: ia beti neu jartzen naiz tiraka eta besteek

aprobetxatu egiten dute. Horrela joan ginen azken txanparaino. Vallone italiarraren erasoari jarraitzen saiatu nintzen, baina ezin izan nuen. Lesioaren ostean txispa falta zait oraindik. Beraz, atzeko multzora jaitsi, indarrak gorde eta azken hiru itzulietan erasoia jo nuen. Bigarren amaitu nuen.

Gustura emaitzagaz?

Oso pozik, urte konplikatu daradamalako. Nire markarik onene-

tatik urrun, iazko txispa barik... bigarren postuak garaipenaren zaporea utzi dit. Gainera, maila handia zegoen. Zeuden aurkariak kontuan hartuta, ezin naiz kexatu. Azken unera arte sufritu beharko nuela mentalizatuta nentorren, eta horrela izan zen.

Zer lesio izan duzu?

Eskumako belauneko lotailuan hezur-edema bat izan nuen. Hankak hainbeste zigortzen dituzu, azke-

nean desgastatu egiten direla. Urri edo azarotik aurrera lau hilabete eman nituen sendatzeko. Egunero korrika ibiltzetik, autobusa hartzeko ere ezin korrika egitera pasatu nintzen. Egia esanda, txarto pasatu dut, oso txarto. Sasoiari eusteko, bizikleta estatikoan ibili naiz. Zorionez, erabat errekupe-ratuta nago. Ez dut ezelako minik. **Gaur 5.000 metroko proban arituko zara. Zer helburu duzu?** Europako txapelketan nire helburu nagusia 10.000 metroko proba zen eta bigarren eginda pisu handia kendu dut gainetik. 5.000 metroko proban denbora ona egi-tea dut helburu. Dominengatik borrokatzea gaitz dago, baina sekula ez da jakiten.

DURANGALDEKO ALBISTEAK JASOTZEKO BIDE BERRIAK

Anboto Komunikabideak
@anboto
@anbotokomunikabideak

Whatsapp bidez
Bidali 'ALTA' 688 635 041
zenbakira whatsapp
bidezko mezua bidalita

Telegram bidez
Bilatzailearen bidez
'ANBOTO' kontuan
sartu eta egin klik
'HASI' botoian

Bulegorako
zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

Arabara, Gipuzkoara edo Errioxara joango dira, aurten, Master Kaiolako txapel preziatuak

Zornotzan Master Kaiola lau t'erdiko pilota txapelketako finalak jokatuko dituzte zapatuan, 21ean. Gazte mailako finala Gutierrezek eta Alberdik jokatuko dute, 18:00etan; ondoren, 22 urtez azpikoan Uribe eta Zubizarreta lehiatuko dira

ZORNOTZA • AITZIBER BASAURI

Zornotzan Master Kaiola lau t'erdiko pilota txapelketako finalak jokatuko dituzte zapatuan, 18:00etan. Iazko irudirik ez du utziko laugarren aldia beteko duen txapelketak, ez baitago bizkaitarrik tartean. 22 urtez azpiko finalean Arabara edo Gipuzkoara joango da txapela, eta gazteen mailan Errioxara edo Gipuzkoara.

Gazte mailako finala Sergio Gutierrez errioxarraren eta Julen Alberdi andoaindarraren artekoa da. Ezaugarri oso desberdinak dituzten pilotariak dira, eta bakoitza bere jokoa egiten ahaleginduko da. Pilota oso bizi eramaten du Gutierrezek, eta Alberdiri min egin diezaiolake horrek. Hala ere, erabilitako materialak asko eragingo du, joko mota erabakiko duelako.

Erritmo gogorreko partidua

Gazteen ostean, 22 urtez azpiko finala jokatuko da. David Uribe gasteiztarra eta Iraitx Zubizarreta lazkaotarrak neurtuko dituzte

indarrak. Oso pilotari biziak dira biak ala biak, errematatzaileak, eta horrek erabakiko du partidua. Litekeena da errematean asmatzen duenak eramatea jokoa. Erritmo oso gogorreko partidua izango da

bi pilotariak eskainiko dutena, adituen ustez.

Durungaldekoak ezin heldu

Eskualdeko jokalariek ez dute maila ona eman Master Kaiolan. Gazte

mailan, uste baino baxuago ibili da Iñigo Atutxa zornotzarra, Bizkaiko txapelduna lau t'erdian. Ez du bere erik eman. Ordezko moduan jokatuko du Zornotzako Ander Alzagak ere, baina askogatik galdu zuen.



David Uribe gasteiztarra (eskuman) izango da 22 urtez azpiko finalako protagonistetako bat. Argazkia: Arabako Pilota Federazioa

Adituaren txokoa

Koikili Lertxundi
Del Campo
Futbolari ohia
eta enpresaria



Amesteko denboraldia?

Denboraldi-aurrearen hasieran gauden honetan, galdera hau bolo-bolo dabil Athletic zaleon elkarrizketa ugarietan. Izan ere, aldaketek normalean beldurra sortzen duten arren, funtzionatu ez duenak halaberbarrez eraldaketa eskatzen du. Eta hori da zehazki Athleticen egin duena, entrenatzaile zein jokalarri berriak fitxatu ditu denboraldi berriari begira.

Horrela, baikortasunean eta ilusioan oinarritutako egoera eta giro berriak sortzen dira, taldearen inguruan konfiantza

"Baikorra naiz eta zintzoki uste dut denboraldi ona izango dela Athleticentzat"

berreskuratuz. Hori bai, egoera horretatik amets egitera salto handia dagoela uste dut, gero berdegunean demostratu behar baita ea noraino iristen den taldea.

Halere, ni baikorra naiz eta zintzoki uste dut datorren denboraldia ona izango dela Athleticentzat, kalitate handiko jokalarriak eta entrenatzaileak ditugulako eta, batez ere, lehiaketaren maiztasunak asko baldintzatzen duelako errendimendua. Hau da, partidatik partidara prestaketa nahiz errekupeziarako sei egun izateak, taldeari bere mailarik gorena lortzen lagunduko dio. Bide batez, epeen malgutasun horrek entrenatzaileari jokalarriak ondo ezagutzeko beharrezko denbora eta patxada emango dizkio. Ondoren, esan bezala, berdeguneak erakutsiko du ea noraino amestuko dugun, baina baloia mugimenduan jarri aurretik, kanpo nahiz barne baldintzak egokiak direla esango nuke.

Aupa Athletic, orain eta beti!

Athleticeko fitxaketa Cristian Ganeak Ekana zentroan hasi du prestakuntza

Aste bitan zehar alderdi fisikoa eta gaitasun teknikoak landu ditu Durangoko zentroan

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Aste bitan bezero berezia izan du Durangoko Ekana zentroak. Besteak beste, kirolarien prestakuntza fisikoa eta teknika lantzeko entrenamendu plangintza pertsonalizatuak eskaintzen dituen zentroa Cristian Ganea futbolariagaz lanean aritu da Athleticen aurreneboraldia hasi aurreko aste bietan.

Jatorri errumaniarra duen basauritarrak Durangoko zentroa aukeratu du bere prestakuntza



Cristian Ganea Athleticekin izandako aurkezpenean. Athletic Club.

lantzeko. 15 egun intentso izan dira eta alderdi fisikoa ez ezik, bere zelaiko kokapenak —ezker hegala— eskatzen dituen gaitasun teknikoak hobetzeko ariketak ere egin ditu. Zentroan egindako lana Abadiñoko Astola futbol zelaian egindako saioekin osatu du.

Entrenamendu plangintza pertsonalizatuak ez ezik, kirol eta osasun ikuspuntuak esfortzu probak eta lesio baten osteko berregokitze prozesuak dira Ekanak eskaintzen dituen beste zerbitzuetako batzuk. Batez ere, futbolariekin aritzen dira, Bigarren B Mailako eta Hirugarren Mailako jokalariekin, baina beste hainbat kiroletatik ere jotzen dute eurengana, triatloietatik zein korrikako modalitateen mundutik, besteak beste.



clínica dental hartz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com



OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

Osasun gida

anboto

Psikologia
PSE: 62/11



JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

Estetika
PSE: 16/09



AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaedurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak... Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

Naturopatia
PSE: 49/18



NAROBA
Naturopatia eta masaje zentrua

Masaje deskontrakturantea
Drenatze limfatikoa.
Osteopatia.
Tratamendu naturalak
Masaje metamorfikoa

San Ignazio Auzunea 1, behea. Durango
675 706 599
www.naroba.net

Optometria
PSE: 162/13



keinu optometria zentroa

Neia Zabala Auzumendi
11587 kol. zk.

- Optometriari teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haumen ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak.
- Syntonik fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.
- Orto-k.

Aitariatz 3
48240 Berriz
tel: 948225090

www.keinuoptometriazentroa.com

Pedagogia
PSE: 63/63



UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA
Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea, fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090

Fisioterapia
PSE: 119/13



Zainduz
FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

Fisioterapia
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

Fisioterapia
PSE: 155/17



HOBETU
FISIOTERAPIA & PODOLOGIA

info@hobetu.es
T/ 946 582 444

K/ Buzkantz kalea, 2
P.K./ 48230 Elorrio
www.hobetu.es

Podologia
PSE: 148/13



PAUSOZ PAUSO
PODOLOGIA KLINIKA

GOIATZ MURUA
Podologoa
AINHOA ELORZA
Podologoa
NEREA RODRIGUEZ
Podologoa

Kiropodia, onikopatia,
alteraziodermatologikoak
eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 behea DURANGO
946 203 630

Odontologia
PSE: 145/13



clínica dental hartz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

(Muruetatorre, 2C blokea, behea)
DURANGO
Tel.: 946 819 951
Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

Odontologia
PSE: 112/13



J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200



Profesionalik onenak zure zerbitzura!



Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA/NEGOZIOAK
DENETARIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA/KIROLA
FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK SALDU

Baserría salgai Elorrión.

Ekonomikoa, berriztua eta ondo kokatua. Lur-sailarekin eta garajearekin. Tel.: 617-63 67 65

Berriz. Pisua salgai Berrizen, Margarita Maturana kalean. Bi logela, sukaldia eta egongela batera, komuna eta balkoia dituen etxabea. Bizitzera sartzeko prest. Trastelekua eta garajea barne, igogailuarekin. 112.000€. Tel.: 652752394

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Durango. 31 urteko neska bat naiz eta pisukide berri bat bilatzen nabil uztailean sartzeko. Etxeak 60 metro karratu neurtzen ditu, 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. 4. solairua, igogailurik gabe. 275 euro hilean, gastuak kontuan eduki gabe. 25-35 urte bitarteko neska arduratsua baten bila nabil.

Lana Formakuntza

LAN ESKARIAK

LAN ESKARIAK PERTSONAK ZAINDU

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea orduka lan egiteko prest. Eskarmentua eta erreferentziak ditut. Tel.: 632-72 50 54

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea orduka lan egiteko prest. Eskarmentua eta erreferentziak ditut. Tel.: 632-08 98 52

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Kanpoko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 632-56 47 46

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak

zaintzen. Barneko, kanpoko, orduka edo gaueko langilea. Tel.: 602-11 70 84

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko, kanpoko zein orduka langilea. Eskarmentua eta erreferentziak ditut. Tel.: 632-10 22 32

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Lanaldi erdian, orduka edo asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 632-57 16 20

Umeak zaintzeko prest. Urte askotako esperientzia daukat ume zaintzan. Irailetik aurrera lan egiteko premia daukat. Durangon. Interesatuta egon ezkerreko deitu edo bidali mezua. Tel.: 644411174 edo irantzulau@gmail.com

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Kanpoko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 643-60 05 23

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Barneko zein kanpoko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Eskarmentua eta erreferentziak ditut. Tel.: 612-55 14 11

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Barneko zein kanpoko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Eskarmentua eta erreferentziak ditut. Tel.: 612-55 14 11

Lan bila nabil sukaldari laguntzaile moduan. Lan bila nabil sukaldari laguntzaile moduan. Baita gauez edo goizez pertsona nagusiak zaintzen ere. Eskarmentua dut, baita gidatzeko baimena eta autoa ere. Tel.: 639-43 31 56

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko langilea, gauez edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 602-09 39 65

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan bila nabil. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko zein orduka langilea. Tel.: 612-57 41 37

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 643-25 21 90

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa

lanetan ere. Kanpoko zein barneko langilea, gauez, asteburuetan, orduka, lanaldi erdian edo lanaldi osoan lan egiteko prest. Tel.: 632-38 58 05

Umeak eta pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil umeak edo nagusiak zaintzen. Baita etxeko lanak egiten ere. Tel.: 634-04 10 87

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Orduka lan egiteko prest. Tel.: 603-63 47 77

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Kanpoko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, baita garbiketa zein sukaldari lanetan ere. Eskarmentua eta erreferentziak ditut. Tel.: 631-13 95 47

Lan bila nabil. Zerbitzari, etxeko langile, tabernako laguntzaile eta ileapaindegiko laguntzaile izateko prest nago. Garbiketa edo orduka lan egiteko nuke. Tel.: 674-76 49 03

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Erreferentzia onak dituen langilea pertsona nagusiak zaintzeko prest dago, bai etxeetan, erresidentzietan zein ospitaleetan. Etxea garbitzeko edo janaria prestatzeko prest nago. Tel.: 664-08 91 44

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko zein orduka langilea. Tel.: 612-57 41 37

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Langile euskalduna lan bila dabil Durangon pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Tel.: 673-68 97 69

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Kanpoko zein barneko langilea, gauez edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 632-11 82 17

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Barneko zein kanpoko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Eskarmentua, erreferentziak eta paperak ditut. Tel.: 632-10 22 32

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko, asteburuetako, orduka zein gaueko langilea. Tel.: 631-89 17 09

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko zein barneko langilea, gauez,

asteburuetan edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 631-89 17 09

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume arduratsua lan bila nabil nagusiak edo umeak zaintzen. Tel.: 689-57 18 82 Tel.: 666-19 78 31

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, barneko zein kanpoko langile moduan. Berehala lanean hasteko prest nago eta erreferentziak ditut. Tel.: 631-34 32 32

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko, barneko, gaueko zein orduka langilea. Gidabaimena daukat. Tel.: 612-54 69 51

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Mutil arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Kanpoko zein barneko langilea asteburuetan edo orduka lan egiteko prest. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 632-30 47 00

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Prest nago ospitaleetan lan egiteko, baita garbiketa lanetan aritzeko ere. Eskarmentua eta erreferentziak ditut. Tel.: 632-72 50 54

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Eskarmentu eta erreferentziadun langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 612-41 41 40

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Eskarmentu eta erreferentziadun langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 602-81 24 42

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Pertsona arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan. Erreferentziak ditut. Tel.: 612-24 53 26

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Eskarmentudun langile euskalduna lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan, ostalaritzan, merkataritzan...ere. Kanpoko zein barneko langilea, gauez, asteburuetan, orduka, lanaldi erdian edo osoan lan egiteko prest. Berehala lanean hasteko prest nago. Gidabaimena daukat. Tel.: 664-14 69 04

Pertsona nagusiak zaintzen d Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, baita garbiketa lanetan eta taberna edo bulegoetan. Tel.: 602-11 06 74

Pertsona nagusiak zaintzen d Kanpoko zein barneko langilea lan dabil pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 632-10 22 32

Pertsona nagusiak zaintzen d Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, baita erizain laguntzaile moduan ere. Barneko langilea. Tel.: 612-21 26 54

Pertsona nagusiak zaintzen d Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen barneko langile moduan. Tel.: 628-92 91 46

Pertsona nagusiak zaintzen d Mutil arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 685-54 18 30

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein orduka langilea. Tel.: 602-09 39 65

Pertsona nagusiak zaintzen d Pertsona arduratsua lan bila nabil barneko zein kanpoko langile mod Bost urteko esperientzia dut. Etxe lanak egiteko ere prest nago. Tel.: 632-10 22 32

Pertsona nagusiak zaintzen d Erizain arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barne langile moduan, baserrietan, ospitaleetan... Etxeko lanak egiteko prest nago. Tel.: 699-73 01 24

LAN ESKAINTZAK

LAN ESKAINTZ PERTSONAK ZAIN

Pertsona euskalduna behar da Abadiñon ume bat zaintzeko. Pertsona euskalduna behar da Abadiñon sei urteko ume bat zaintzeko, irailtik aurrera. Egun soltetako lana izango litzateke (esl ostean), eta etxea garbitzeko aste behin. Tel.: 688-86 18 78

Geriatría laguntzailea edo erizain laguntzailea behar da. Geriatría laguntzaile edo erizain laguntzaile den pertsona bat behar da, buruko gaixotasuna duen nagusi batekin egoteko. Astelehenetik barikura, arratsalde. Tel.: 649-33 08 87

Sei hilabeteko umea. Andra euskalduna behar da sei hilabeteko umea zaintzeko Elorrión. Abuztial 3, 6-10 goizetan. Tel. 635701024.

Zorion Agurrak

zorionak@anboto.org · EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA



Gelditzen al da egiazko toma-terik?


Uda. Horixe da tomatearen urtaroa. Etxean bezala kanpoan ere, menuetan leku handia hartzen dute fruitu gorri horrekin egindako entsaladek, zopek, saltsek eta guarnizio fresko-freskoek. Gorri min horrek badu zerbait... Koloreak erakarri egiten gaitu, baina zapoak ez du, itxuraz, berotasun handirik sortzen jendearengan. Tomatearen inguruko solasaldiak ohikoak izaten dira mahai inguruan biltzen garenean edo edozein saltokitako salmahaiaren aurrean gaudenean. Eta beti ez da izaten gauza onak esateko. Tomatezale amorratuenei iruditzen zaie zerbait galdu dela bidean. "Baratzeko" tomate horren falta sumatzen dute. Adituek ere arrazoia ematen diete. Tomate batzuek galdu egin dute zaporea: "Tomate mota batzuek denbora gehiago irauten dute merkatuan eta, hain justu, zapoaren zati bat galdu duten horiek dira; ekoizpena ere handiagoa izaten dute, munduko populazio gero eta ugariagoa elikatzeke", azaldu du Cajamar Estazio Esperimentaleko (Mediterraneoko nekazaritza intentsiboa ikertzeko zentro bat da) Juan Carlos Gazquezek.

Kontu genetikoak

Ikerketa batek ere berresten du orain arte esan duguna (Sciencie aldizkarian argitaratu zen). Nazioarteko ikertzaileek 398 tomate mota aztertu zituzten, eta DNA genomikoaren sekuentzia eta zaporea ematen duten konposatuen osaera zehaztu zuten: "DNAn dago informazio guztia tomate on bat edo txar bat egiteko, eta asoziazio genetikoak egiten dituzten ikerketen bidez, ikusi genuen gutxi gorabehera tomatearen genomako ehun eremurik parte hartzen dutela zaporea ematen duten konposatu horiek sortzen", azaldu du Antonio Granell-ek, CSICeko irakasle eta Espainiako adarreko zuzendariak. Eta erantsi du: "Tomatearen zaporea eta zapo horren sendotasun tipikoa 20 konposatu lurrunkorrek eragiten dute.

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.




Zorionak, **Maier**, zure bederatzigarren urtebetetzean. Mosu handi-handi bat!




Zorionak, **Nikole**. Gure etxeko sorgintxuek 2 urte bete ditu astion. Zelako arin hazi zaren! Mosu potolo eta handi bat etxeko danon partez, ilargiraino eta buelta maite zaitugu!




Uztailaren 12an **Jon** Armendia dantzari politak 6 urte egin zituen. Zorionak eta mosutxo bat Axpe eta Mañaritik.



Ijorretako neba-arrebek urteik betetan dabez, **Iratik** 24an eta **Oroitzek** 26an. Zorijonak eta mu-xu potolo bana etxekuen partez.



Uztailaren 30ean **Oihanek** 4 urte beteko dauz. Muxu potolo bat etxeko denen partez.



Uztailaren 13an 7 urte egin zituen **Lucia** Muriel Cebrianek. Zorixonak, neska handi! Familia danen partez, mua!



Txiki-txoko taldeko 3-5 urte arteko 60 umek ANBOTO bisitatu zuten astelehenean. Aldizkariaren funtzionamendua ezagutzeaz gain, Plazan Bazan denborapasak egin zituzten. Hauxe izan da udalekuen azken astea. Ondo pasa oporrak!



Zorixonak, printzesa! Uztailaren 22an 10 urte. Muxote potolo bat etxekuen partetik! Ondo pasa preziosa!

Botikak

BARIKUA, 20 · 09:00-09:00	NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	JAIO-OLABARRIETA Errekakale 6. - ELORRIO
09:00-22:00	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	09:00-14:00
ZAPATUA, 21 · 09:00-09:00	IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	09:00-22:00
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-13:30	DOMEKA, 22 · 09:00-09:00
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO
BAZAN DIAZ Urribarri 5 - DURANGO	GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	09:00-22:00

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
JAIO-OLABARRIETA Errekakale 6. - ELORRIO	MARTITZENA, 24 · 09:00-09:00
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO
09:00-14:00	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	09:00-22:00
09:00-22:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	MARTITZENA, 24 · 09:00-09:00
DOMEKA, 22 · 09:00-09:00	DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	09:00-22:00
09:00-22:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	EGUAZTENA, 25 09:00-09:00
ASTELEHENA, 23 · 09:00-09:00	NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	09:00-22:00
09:00-22:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	EGUENA, 26 · 09:00-09:00
MARTITZENA, 24 · 09:00-09:00	ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	09:00-22:00
09:00-22:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	

EGUAZTENA, 25 09:00-09:00	NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	09:00-22:00
09:00-22:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	EGUENA, 26 · 09:00-09:00
EGUENA, 26 · 09:00-09:00	ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO
ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	09:00-22:00
09:00-22:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	

katerin ardoak
iñaki uribe
saltzan
Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltzan.com

27 | TRAVELLIN´ BROTHERS
22:30ean / Tola Jauregia
28 | TOSTA BANDA
22:30ean / Tola Jauregia
29 | ENEKORA
22:30ean / Tola Jauregia
Udako Jaialdia
www.musikaire.eus

“Kalean margotzea gustatzen zait, kaleagaz lotura zuzena izatea”

'Martz' du gaitzizena, eta Zornotzan ez ezik Durangaldeko beste hainbat herritan ikusi daitezke espraiekin egindako bere muralak; Karmenetan ere aprobetxatuko du margotzeko

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Karmen eta Santana jaiak amaituta, Brasileria joango da 'Martz' grafitigile gaztea, Ingurumen Ingeniaritza ikasketak amaitzera. Esperientzia bizi gura du eta gogotsu doa grafitiaren mugimendua hedatuago dagoen herrialdera. Munduko Loreak ekimenaren barruan, integrazioa eta kultur aniztasuna islatzen dituen murala egin zuen Izurtzan. Esperientzia polita eta berria izan zen gazte etorkinekin.

Euskaldun brasildarra zarela esan daiteke?

Bai. Ama euskalduna dut, Zornotzako. Aita, berriz, brasildarra. Familia erdia Rio de Janeiron (Brasil) dut. **Kaleko artista zara. Nondik datorkizu espraiekin duzun lotura?**

Espraiekin egindako lan guztiek marrazkia dute oinarri. Esku ona izan dut beti marrazteko, eta txikitatik gustatu zait. Kalean espraiekin marraztutako letrak asko ikusten dira eta horiekiko kuriositatea sortu zitzaidan. Bada, diru pixka bat aurreztu, eta nire lehenengo espraia 14-15 urtegar erosi nituen. Letrak margotzen hasi nintzen, eta lan eskas asko egin nituen. Baina segituan aspertu nintzen letrekin, eta marrazkiak egiten hasi nintzen. Marrazketarako esku ona izateak asko lagundu zidan.

Zer islatu gura duzu zure lanetan?

6-7 urte daramatzat kalean margotzen, eta eboluzio bat izan dudala esango nuke. Denetarik egon da. Askotan mezurik gabeko marrazkiak egin ditut, norberaren lana erakusteko. Baina baditut mezu bat zabaldu gura duten lanak ere, kritika egin gura dutenak, nire sentimendu edo emozioak islatu gura dituztenak. Herriko mugimendu sozialek proposatuta ere egin ditut grafitiak.

Espraiekin egindako marrazki edo mural batek mezu bat zabaldu behar duen ala ez, badago hor eztabaida bat.

Bai. Oreka bat egon behar dela uste dut. Muturreko jarrerak daude, baina neutraltasun bat egon behar du. Erdibidean nago ni. Mezurik gabeko grafitia sortzeko gogoia izan dezakezu une batean, eta hurrengoan ez. Egunak daude.

Nola definituko zenuke zure lana?

Desberdina, bereizgarria dela esango nuke, inguruan ez delako askorik ikusten. Interneten ezagutu ditut horrelako lanak, Espainia hegoaldean edo munduaren beste aldean egindakoak. Autodidakta naiz. Hasi nintzenez, inork gutxi margotzen zuen kalean. Orain, badira interesa dutenak: estudioan edo paperean marrazten dutenak, diseinatzaile grafikoak... Marrazketan oinarri bat dutenei espraiekin teknika erakusten ibili naiz.

Pertsonak marrazten dituzu...

Giza anatomia da ondo egiten dudana, paisaje gutxi ditut.

Baduzu erreferenterik?

Teknikari dagokionez, Miguel Angel Belinchon 'Belin' (Jaen). Hiperrealismo itzelak egiten ditu espraiekin. Mezudun grafitiei dago kienez, 'Aryz' (Bartzelona). Espraiekin baino, pintura plastikoagaz marrazten du gehiago, mural erraldoiak egiten ditu kalean. Kalean margotzea gustatzen zait niri ere, kaleagaz lotura zuzena izatea. Gura nuke haien mailara heldu!

Egin duzu mural erraldoirik?

Altueran bost metro eta zabalera 10-12 dituen margoitu nuen Bilbon, Uribarri konpartsa rentzat. Baina denbora behar da h o -



Martzel Do Nascimento Goiria
Grafitigilea
Zornotza | 1997

rretarako, eta gurago dut egunean hasi eta amaitu. Ordainpeko lana ez bada, normalean ez dut halakorik egiten.

Ofizo bihurtu gura zenuke?

Ez, momentuz ez. Zaletasun handia da. Iazko udan hainbat lan egin nituen, diru apur bat irabazteko. Ia ezer ez nuen egin nire kabuz. Bada, grafitiak bere xarma galdu zuen.

Non ikusi daitezke zure lanak?

Zornotzan asko daude. Durangon, Elorrioren, Apatan, Donostian, Gasteizen, Lekeitioan, Lemoan, Madrilan eta Bugosen ere egin ditut, adibidez. Bidaiatzea asko gustatzen zait, eta beti aprobetxatzen dut margotzeko. Brasilen ere margotu dut.

Kalea duzu oihala...

Bai. Hasi nintzenez lan eskasak egiten nituen, eta inori ez zaio gustatzen etxeko atean margotzea. Korrika asko egindakoa naiz, baina denok hasi gara horrela. Orain gerta daiteke mural bat egitea eta herritarrek eskertzea. Egindako bozeto bat gustatu bazait, banoa kalera margotzera. Klandestinitate puntu hori gustatzen zait.

Erraza da leku egokia topatzea?

Bai. Baina pauso bat aurrera ematen saiatzen naiz beti, begi-bistakoagoa den toki bat topatzen, jende gehiago dabilelako eta elkarreragitea handiagoa delako. Zornotzan denek ezagutzen naute, baina toki berri batera banoa, ez bazaituzte ezagutzen, traba gehiago egon daitezke.

Zer margotu gura zenuke?

Barakaldorantz errepide ondoan dauden ur biltegi handi horietako bat. Proiektu bat aurkeztea pentsatu dut, beka bat eskatuta.

Jaietan zaudete herrian. Nola bizi dituzte egun hauek?

Margotzen. Burdin Hari elkar-teagaz batera errefuxiatuen alde mural bat egingo dugu pare bat artistok. Tragoren bat jotzeko edo beste ekintzaren batean parte hartzeko denbora ere egoten da. Asko gustatzen zait egoten den jai giroa.

Lau-hortza

Uxue Martinez Mazaga
Soziologoa



Eguzkiari kateatuak

Ez da uste bat, ikerketa batek baieztatu du eguraldiak eragina duela gure gogoan eta aldar-tean. Eguzkiaren izpiek baikorra goak, alaiagoak eta zorionsuagoak egiten gaituzte.

Eguzkiak ematen digun alegrantzaren eta beroaren gose gara gizakiak. Horren seinale dira hondartzan egiten ditugun elkarrate-ratze masiboak, argi izpiek gure gorputza berotu eta larruazala belztu dezaten. Azaleko kolore aldaketaren erantzule nagusia erradiazio ultramorea da eta badakigu honen azpian denbora larregi pasatzea kaltegarria dela. Hala ere, ez diogu errespetu handirik erradiazioari eta erraz ahazten dugu azala belz-teak baduela alde iluna: melanomak.

Azaleko minbizien artean melanomak ditu ondorio latzenak eta hauen eragina bikoiztu egin da gurean azken hamar urteotan. Iaz %10 hazi zen hauen inzidentzia. Izan ere, bost melanoma kasutik lau herrialde garatuetan diagnostikatzen dira, gehienak European.

Minbizien rakinga eginez gero, ikusiko dugu larruazaleko minbizia bederatzigarren postuan dagoela europar kontinentean. Emakumeek gehien pairatzen dituzten minbizien artean, bederatzigarrena da ere, eta hamahirugarrena gizonezkoen artean. Hondartza bazterretan ikusi ditugu larruazaleko minbizia buruz ohartarazten duten postuak. Azaleko pigmentazioa aztertuta eta erradiazio ultramoreetatik babesteko eguzkitako babes-krema zehatza gomendatzen digute. Eguzkiari kateatuak bizitzeak baditu mugak.

Duela egun batzuk Twitterren irakurri nuen eguzki kontuetan iparra galdu dugula. Erradiazio ultramoreen eraginez kiskaltzeko prest gaude eta, aldiz, kanpaina sutuak egiten ditugu WiFiko uhinen ustezko eragina salatuzko, mugikor- rrek eskuan ditugun bitartean. Kontraesanak. Zoritxarrez, eguzkiak ez gaitu bihurtzen arduratsukoak.

PARTE HARTU UDAKO ARGAZKI LEHIAKETAN ETA IRABAZI HURRENGO SARIETAKO BAT!

Bidali zure argazkiak irailaren 15era arte

2 KATEGORIA SARITUKO DIRA:

- DURANGALDEKO ARGAZKIRIK ONENA
- DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

Garaiko landetxean gau bat



Tableta



Bidaia bat



Barbakoa



UDAKO 4. ARGAZKI LEHIAKETA

anboto

Informazio gehiago
www.anboto.org webgunean

ANTOLATZAILEA **anboto**

LAGUNTZAILEAK

EROSKI bidaiak

EROSKI zurekin

elaia

IMAZA

GIROA